

## Ortophonk taldea

Gasteizko funkya ekarri zuten Arrasatera  
KULTURA, 26



## Mondrak 3-1 galdu zuen Trintxerperen zelaian

UDAk berdinketa besterik ez zuen lortu Ordizian  
KIROLA, 16

## Manex Agirre

Ez du Arabako txapela jantzi  
KULTURA, 26



# ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko maiatzaren 29a • 3. urtea • 103. zenbakia • 0,90 euro

## Munduko kulturen jaialdiak jendetza eta festa giroa ekarri ditu Oñatira

*Aurtengoan, eguraldia lagun, benetako arreta piztea lortu du Mundumira jaialdiak*

**KALEAN BIZITAKO FESTA**  
Kale animazioak eta ikuskizunek kalera atera zuten jaia eta jendeak ezin hobeto erantzun zuen

**KANPORA ZABALTZEA**  
Bertakoak asko baina kanpotik, Katalunia, Madril eta Frantziatik ere etorri dira bisitariak asteburuan

**GKE-EN PARTAIDETZA**  
Ibarreko GKEek ere saltokiak eta informazio guneak ipini zituzten unibertsitatean

Arrakasta izan da antolatzaileek ahoz aho ibilitako berba, asteburuan Oñatin egindako Mundumira jaialdiak jasotako erantzuna azaltzeko orduan. Kanean giro apartarekin eta kontzertuetan jende ugariarekin, bigarren edizio indartsua izan du Munduko Kulturen Festak. **22-24**



JOSETXO ARANTZABAL

Eguraldi bikaina eta adin guztietarako egitarau aberatsa izan dira aurtengo arrakastaren oinarriak.

## Aloñari ihes egin dio 3. mailak

*Oñatiarrak bigarren postuarekin bueltatu ziren Irundik*

Azken hilabeteotan Preferenteko lehengo postuari eutsi eta gero, Aloña Mendik bigarren amaitu du denboraldia. Irunen 3-0 galdu zuten Orue-taren mutilek Real Unionen aurka, eta txapeldunordearen saria jaso zuten. Jarraitzailez betetako bi autobus atera ziren Irunera Oñatitik. **12-15**

## Ricardo Mejia nagusi Aizkorrin

*Mexikarra lasterketa burua izan zen une oro. 4:03:41ean egin zuen maratonia* **17**

## Mobilizazio eguna barikuan

*'Baldintza demokratikoak orain!' leloarekin agerraldia deitu dute Arrasaten* **6**

## 1.500 bat haur udaleku irekietara

Eskolako oporrak hurbiltzen ari dira eta horiekin batera, uztaileko udaleku irekiak. Herri batzuetan izenemate epea itxita egon arren, Aretxabaletan eta Antzuolan zabalik dago oraindik, eta Elgeta eta Gatzagan zabaltzear. 1.500 ume inguruk hartuko dute parte. **2-3**

# GEUREAN

- Oñatiko hainbat ikaslek euskal liburuen 'bookcrossing'-a egin dute | 4
- 900 erretiratu inguru batu ziren atzo Arrasaten, Erretiratuen Egunean | 7



Juana Ramos  
Estatuko  
transexualen  
lehendakariarekin  
jardun dugu | 5

## UZTAILEKO UDALEKUAK

UDALEKU IREKIAK | IBARREKO HERRI GUZTIETAN EGONGO DIRA; HALA, UZTAILEAN BARRENA IRTEERAK, JOLASAK ETA JAIK DITUZTE TXIKIENEK

# 1.500 ume inguruk jardungo dute uztaileko udaleku irekietan aurten



San Fermin ospakizuna ohikoa izaten da uztaileko udalekuetan.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

*Aretxabaletan eta Antzuolan zabalik dago oraindik izenemate epea eta Elgetan eta Gatzagan zabaltzear*

*Haurrek ondo pasatzeaz gain, euskararen normalizazioa dute helburu udalekuok*

Monika Belastegi

Eskolako oporrak hurbiltzen ari dira eta horrekin batera, baita uztaileko udaleku irekiak ere. Gureko hainbat herritan -Arrasate, Aramaio, Oñati, Eskoriatza, eta Bergara- izenemate epeak itxita daude dagoeneko, baina beste herri batzuetan oraindik ere zabalik daude -Aretxabaleta eta Antzuola-, edo zabaltzear -Elgeta eta Gatzaga-.

Dagoeneko izena emanda duten umeak kontuan izanda, eta herri bakoitzeko udalekue-tako arduradunek egindako aurreikuspenen arabera, 1.500 neska-mutikok -2 urtetik hasi eta 13ra bitartean, herriaren arabera- jardungo dute aurten Debagoieneko uztaileko udaleku irekietan.

### UDAZ GOZATZEKO HAMAIIKA ARRAZOI

Udalekuok antolatzeke orduan, herriaren arabera, udaletako euskara edo kultura zerbitzuak edo euskara elkarteak dira horretan jarduten dutenak.

Euskara elkarteei dagokienez, *Udaz gozatzeke hamaika arrazoi eta mila aukera!* leloa jarri diote udarako prestatu duten eskaintzari, eta beraz definitzen duten ezaugarriak dira: planifikatua da eta egitasmo sendo baten kokatuta dago, jarraitua dela, herritartasunean oinarritutakoa, sormenezkoa, malgua, kalitatea du oinarri, askotarikoa da, eredu integratzaile eta parte-hartzailea du ardatz, aukera berdintasunean

oinarrituta dago, tokian tokikoa da eta euskararen eremu osora zuzenduta dago.

Gure ibarreko euskara elkar-teetara etorrita, Arrasateko Txatxilipurdi da uztaileko udaleku irekien kasuan zerbitzu hedatuena duena. Arrasateko udaleku irekiez gain, Oñatikoak ere koordinatuko ditu aurten, lehenengoz -Gatzagakoak koordinatze-ko aukera ere aztertzen dihardute hango Gurel guraso elkar-tekoekin-. Horrekin batera, Aretxabaleta eta Eskoriatzako gaztelekuetako -12tik 16 urtera arte- *Udaero!* uztaileko programa bereziaz ere eurak arduratzen dira. Baita Arrasaten adin tarte bereko gazteendako *Udaixe!* egitarau bereziaz ere. Horren haritik, Txatxilipurdiko arduradunak pozik azaldu dira udalok euren lanean jarri duten konfiantzagatik.

Bestalde, udaleku irekietarako begiraleak prestatu eta beharrezkoak dituzten formazio eskolak emateaz ere Txatxilipurdi arduratzen da ibarreko herri gehienetan. Izan ere, udaleku irekietan aritzen diren begiraleek prestakuntza berezia hartzen dute umeekin jardun aurretik; hala, umeekin lan egiteko metodologia eta ekintzak eta programaketak diseinatzeko jarraitu beharrek pausoak berengantzeko.

Uztailaren lehenengotan ekingo diete umeek udaleku irekiei eta hainbat jolas, jai eta irteera egingo dituzte ondo pasatzeko. Betiere, aisialdia bitarteko, euskararen normalizazioa helburu dela.

**Uztail osoan barrena jardungo dute umeek udaleku irekietan**

**145 bat begirale arduratuko dira umez, 10-11 umeko begirale bat**

UZTAILEKO UDALEKUAK



IMANOL SORIANO

ELEN KORTAJARENA | ARRASATEKO UDALEKUETAKO ARDURADUNA (TXATXILIPURDI)

## “Euskaraz jolas egiten eta talde sentimendua indartzen ikasten dute”

M.B.

**Udalekuetan jarduten duten begiraleek formazio eskolak hartzen dituzte umekin jardun aurretik. Arrasateko Txatxilipurdi arduratzen da ibarreko hainbat herritan ikastarook emateaz. Elen Kortajarenak formazioaren garrantzia azpimarratu du.**

**Udalekuetan begirale izango direnei formazio ikastarook ematen dizkiezu. Zein helbururekin?**

Alde batetik, Txatxilipurdi elkartearen lan egiteko metodologia-filosofia barneratzeko (zein helbururekin egiten dugun lan, norberaren funtzioak udalekuetan...) eta, bestetik, uztailako plangintza orokorra egiteko; programaketak burutzeko. Gainera, une egokia da norberaren lantaldea izango dena ezagutzeko eta harremanak sendotzen hasteko. Zein dira ikastaroan irakasten dituzuen gaiak?

Hainbat dira. Besteak beste: umekin lan egiteko metodologia (pedagogia apur bat); udalekuen helburu estrategikoak eta orokorrak; Txatxilipurdiren lan metodologia eta filosofia; ekintzak eta programaketak diseinatzeko jarraitu beharreko pausoak eta kontuan izan beharreko aspektuak; askotariko protokoloak –adibidez, igerilekuan gaudenean une oro zer egin

behar dugun jakiteko–, segurtasun arauak eta uztailako programazioa ere lantzen dugu.

**Udalekuak antolatu eta programazioak egiten dituzuenean, programaziootako ekintzak ez dira soilik umek entretentituta edukitzeko modua; hori baino gehiago dira, eskaintza planifikatua izaten da. Zer ikas dezake ume edo gazteak udalekuetan? Zein ekarpen egin diezaioke?**

Gure udalekuetako helburu orokorrak dira –eta urtez urte horiek lantzea da gure helburua–: Arrasateko haur eta gazteengan euskararen normalizazioa sustatzea; haurren autonomia pertsonala eta parte-hartzea bultzatzea; aniztasun trataera sustatzea (taldekide guztien beharrik asetzeko batik bat); ingurune naturala errespetatzen eta

**“Pedagogia, hainbat egoeratarako protokoloak... ikasten dituzte begiraleek”**

**“Uste dut guraso askok sinisten dutela Txatxilipurdiren lan egiteko moduan”**

zaintzen erakustea eta taldekide-tza sustatzea.

Helburu orokor horiek dira gure iparra eta ekintza eta programaketa guztia, horiek lortzera bideratzen dugu, beti ere, modu oso ludiko eta partehartzailean, noski.

**Zergatik bidaltzen dituzte gurasoek seme-alabak udalekuetara?**

Uste dut, hau gurasoek erantzun behar duten galdera bat dela. Nik nire iritzia eman dezaket baina, gauza guztietan bezala, oso pertsona ezberdinak daude eta asmo guztiz ezberdinak ere. Nik uste dut, hala ere, guraso askok sinisten dutela Txatxilipurdiren lan egiteko moduan, bestela, ez lituzkete beraien seme-alabak bertara ekarri behar.

**Eta seme-alabak udalekuetara bidaltzen ez dituzten gurasoak nola animatuko zenituzke?**

Nik neuk bizi izan dut udalekuetan ume zein hezitzaile bezala izandako esperientzia eta zaila da azaltzea 10 edo 15 egunetan ikas dezakezun guztia.

Azpimarratuko nukeena zera da, elkar banatzen ikasten duzula, talde sentimendua indartzen, euskaraz jolas egiten eta bizitzak eskaintzen dizkigun esperientzia asko eta asko era natural batean bizitzen direla. Eta modu natural eta aldi berean oso planifikatua eta landua den hori da Txatxilipurdik eskaini dezakeena.

### • KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

## Hainbat herritan oraindik ere eman daiteke udaleku irekietarako izena

Aretxabaleta eta Antzuolaren kasuan zabalik dago oraindik uztailako udaleku irekietan izena emateko epea. Lehenengoaren kasuan, etzi, eguaztenena, amaituko da epea. Kultura etxean eman behar da izena. Udalekuak izango dira uztailaren 3tik 23ra, 10:00etatik 12:30era eta 12:30etik 15:00etara. Antzuolari dagokionez, han ere etzira arte, hilak 31, dago zabalik izenematea, udaletxean. Udalekuak izango dira uztailaren 3tik 13ra bitartean, 09:30etik 13:30era.

Elgeta eta Gatzagari dagokienez, ez dute oraindik izena emateko epea zabaldu. Elgetan, ekainaren 2tik 16ra arte egongo da zabalik eta izenematea udaletxeko kirol zerbitzuan egin beharko da. Udalekuak hasiko dira ekainaren 26an eta uztailaren 28an bukatuko dira.

Gatzagaren kasuan, berriz, izenemate epea zehazteko du oraindik Gurel guraso elkarteak.

## Gazteendako uztaileko aisialdi eskaintza bereziak antolatu dituzte

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Elgetako gazteek –12-16 urte-erenguan pentsatutako eskaintza berezia ere izango dute uztailean. Txatxilipurdi elkarteak Arrasateko gazte txokoetarako *Udaixe!* izeneko ekintza sorta prestatu du: surf ikastaroa, bizikleta ibilaldiak, mendi irteerak... horietako batzuek plaza mugatuak dituztenez izena eman beharko da ekainaren 5etik 19ra bitartean. Irekietan ez dago izena eman beharrik. Aretxabaleta eta Eskoriatzako gaztelekuetarako, berriz, *Udaero!* programa antolatu dute. Hor ere Arrasaterako antolatutako ekintzen antzekoak egingo dituzte eta plaza mugatuak diren kasuetarako izena eman beharko dute ekainaren 5etik 19ra bitartean.

Elgetan, hainbat ekintza antolatu ditu Udalak: Tennis ikastaroa –12-16 urte artekoendako–, tai chi –16tik gorakoendako– eta litekeena da zesta punta ikastaroa ere egitea 14tik gorakoendako.

## Udaleku itxiak ere antolatu dituzte Txatxilipurdi eta Jardun elkarteek

Txatxilipurdi eta Jardun euskara elkarteek udaleku itxiak ere antolatu dituzte. Lehenengoak uztaileko bi aukera eskaini ditu: Aulesti –lehenengo joango dira hara– eta Oriu –zazpigarren urtez joango dira–. Aulestikoa 11-16 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta dago eta epea ireki zuten egunean bertan bete ziren leku guztiak –20, hain justu–. Hori dela eta, adin tarte horretako gazteendako eskaintza berezia egin dute: zazpi eguneko egonaldia Orioko kaminean. Izenematea ekainaren 27tik uztailaren 4ra arte egongo da zabalik. Interes dutenek Txatxilipurdira jo dezakete. Oriori dagokionez, DBHko eta LH-5 eta 6ko gazteei zuzenduta dago. Horrek ere izugarriko arrakasta izan du eta honezkero beteta dago.

Bergarako Jardun elkarteak irailerako antolatu du udalekua. LHko haurrendako da eta Sarriara joango dira irailaren 7tik 10era. Prezioa 50 euro dira. Informazio gehiagorako deitu 943 76 36 61 zenbakira.

### • BEGIRALEENDAKO FORMAZIO ESKOLAK



**35 BAT BATU ZIREN ZAPATUAN ARRASATEN.** 145 bat lagunek jardungo dute uztailean gurean begirale lanetan udaleku irekietan –10 umeko begirale bat izaten da gehienetan–. Umekin jardunean hasi aurretik formazio eskolak jasotzen dituzte. Zapatuan, esaterako, 35 bat pertsona batu ziren Arrasaten, Txatxilipurdik emandako eskolatan. Hainbat herritan begirale beharrean daude oraindik.

'BOOKCROSSING'-A | TELEFONO KABINETAN, TABERNETAN, GAZTELEKUAN... UTZI ZITUZTEN LIBURUAK OÑATIN

# Liburuak 'askatu' zituzten irakurle berrien bila

*'Bookcrossing' delako egitasmoarekin bat egin eta 60 liburu 'ezkutatu' zituzten herrian Elkar Hezikoek*

Jon Berezibar

Maiatzeko kultura ekitaldien barruan, Oñatiko Elkar Hezi ikastetxeko DBHko hirugarren mailako ikasleek 60tik gora liburu askatu zituzten egubakoitzean herriko hainbat gunetan. Hone-la, *bookcrossing* delako egitasmoarekin bat egin zuten ikasle gazte horiek. *Bookcrossing*-aren webgunean dagoeneko sei liburu daude erregistratuta.

Egubakoitz arratsaldean banatu zituzten liburuak, *bookcrossing* mugimenduaren arauak jarraituz. Irakurketa sustatzeko mundu mailako ekintza da *bookcrossing* edo liburuaren elkartrukea. Internet bidez kudeatzen da mundu mailako sare hori, eta behin webgunean erabiltzaile legez erregistratuta, sare horretan parte hartzeko aukera ematen du *bookcrossing*-ak. Parte-hartzaile bakoitzak nahi duen lekuan liburu bat utzi (telefono kabina baten, taberna baten edo beste txoko ezkutu baten) eta Interneten jakinarazten du erabiltzaileekin jakin dezaten. Era berean, liburuak hartzen duenak jakinarazi egin behar du eta, nahi izanez gero, iruzkina gehi diezaiake. Hala, katea sortu eta mundua liburutegi erraldoi

bilakatu gura du *bookcrossing*-ak. Gainera, erabiltzaileek *askatutako* liburuaren jarraipena egin dezaketeguneroko baten bitartez.

## OÑATIN 60 LIBURU

Elkar Heziko ikasleek herriko makina bat txokotan utzi zituzten liburuak eta horien berri webgunean bertan eman zuten. 60 liburu dira, guztiak euskaraz eta genero eta adin guztietarakoak. Liburu gehienak egitasmo horretarako erosi zituzten ikastetxeak, baina badaude eskolan errepikatuta zeudenak edo etxetik ekarritakoak ere. Norbaitek liburu horiekin topo eginez gero eta katean sartu, *bookcrossing-spain.com* webgunean alta eman eta jakinarazi beharko luke, *askatzaileak* ere horren berri izateko aukera izan dezan.

Debagoienean Elgeta izan zen *bookcrossing*-a zabalduko lehen herria, eta Espaloia kafe antzokia leku ofizialetako bat da. Hala ere, Oñati da egunotan liburuak zirkulazioan dituen herri bakarra, baina informazioa eta *askatze* berriak egunero egoten dira eta aipatu webguneak eman ohi du haien berri. Momentuz Oñatin sei liburu daude erregistratuta aurkituko dituen irakurlearen zain.



JON BEREZIBAR


DBHko 3. mailako ikasleak arduratu ziren liburuak Oñatiko txokoetan 'ezkutatzeaz'.

## • KATEAK AURRERA EGINGO DUELA USTE DUZUE?




### ENERITZ

"Egitasmo moduan polita da, baina orain ideia zabaldu eta parte-hartzea sustatu behar da. Irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko ideia ona da, eta, gainera, liburu guztiak euskaraz dira; beraz, alde horretatik ere ondo dago, euskaraz irakurtzea ere lortzen delako modu berean".



### IÑAKI

"Uste dut poliki-poliki hasiko dela berria zabaldu eta jendea azkenean animatuko dela. Egitasmo polita da, irakurtzeko zaletasuna piztea eta hori guztia, eta gauzak behar bezala eginez gero mugimenduarekin jarraituko dutela uste dut. Zer gertatzen den ikusi behar...".



### LOREA

"Ez dakit funtzionatuko duen edo benetan emaitza onak emango dituen, egitasmo berria da-eta, baina beti dago ondo, irakurtzeko zaletasuna piztea lortzen bada. Orain katea osatu behar da eta liburuak aurkitzen dituenak mekanikarekin jarraitu beharko du guztiak aurrera egin dezan".

# Diploma jaso zuten ingeniariak

M.B.

Mondragon Unibertsitateko Ingeniaritza ikasketak egin dituzten 149 ikasleek diploma jaso zuten egubakoitzean Amaia antzokian egindako ekitaldian.

Industri Ingeniaritza, Automatika eta Industri Elektronika Ingeniaritza, Industria-antolatetako Ingeniaritza eta Ingeniaritza Informatikoa espezia-

litateetako diplomak jaso zituzten. Besteak beste, Javier Retege MUko Eskola Politeknikoko zuzendaria izan zen ekitaldian. Harekin batera, Iñaki Arriola Ulma Handling Systems-eko zuzendari gerenteak -duela 25 urte goi-mailako Ingeniaritza ikasketak egin zituzten Eskola Politeknikoan- *Etapa bat bidean, eta gero zer?* izeneko hitzaldia egin zuen.



JOSETXO ARANTZABAL

Ingeniaritzako lau espezialitateko 149 ikasleek jaso zuten MUko diploma egubakoitzean Amaia antzokian.

Transexualitatearen problematika gertuagotik jasotzeko Juana Ramos eta Moises Martinez transexualak gonbidatu zituen Arrasatera Emakume Txokoak

egubakoitzean. 39 urterekin hainbat urte darama Juanak transexualen eskubideen alde lanean eta egungo sexu eta genero ereduak zalantzan jartzen. Harekin sexu-

aldaketaz, transexualen elkartearen lanaz eta genero-identitate lege berriaz berba egiteko aukera izan genuen hitzaldiaren aurretik.

**JUANA RAMOS** | ESPAINIAKO TRANSEXUALEN ELKARTEKO PRESIDENTEA

# "Ingeniaria izan arren, lanik ematen ez zidatelako prostituzioan amaitu nuen"

Jon Berezibar

**Noiz konturatu zinen zeneukan gorputza ez zetorrela bat sentitzen zenuen sexuaz?**

Kontua ez zen benetan nire sexua ez nuela sentitzen, arazoa zen nire genitalen arabera esleitutako sexu-sozialarekin ez nentorrela bat. Sexu-inposaketa horrekin ez nengoen ados. Hori da transexualei gertatzen zaiguna, ezarri diguten sexuaren aurka errebelatzen garela. Ez gara genero-ereduan kokatzen eta egin behar duguna, gizarteratze aldera, bi polo horietako baten jartzea da, gizarite-kontentzioen eraginez.

**Orain modu arrazionalagoan ulertuko duzu, baina umetan askoz ere zailagoa izango zen.**

Umetan badakizu zer bait gertatzen zaizula, baina ez zer den. Zuretzat balio ez duten eskema batzuetan hezten zaituzte eta ezin zara bizi sentitzen duzun modu horretan, ezin duzu azaldu. Oso gogorra den zer bait sentitzen duzu, aurreiritziz eta tabuez josia eta badakizu horrek arazo asko ekarriko dizkizula. Denborarekin eta beste transexual batzuekin harremanetan, jabetzen hasten zara. Gainera, badago erreparoa ere ezberdina zarela onartzeko, ze onarpenaren unetik beretik baztertua izatera kondenatzen zarela badakizu, baztertuen putzura zoazela badakizu.

**Erabat beltz, hortaz?**

Nerabezaroan hala pentsatzen duzu, sexua lehenasunezkoa den garaia da, eta denbora luzea ematen duzu zure egoera gain hartzen. Hogeita piku urterekin egin nuen nik.

**Etxekoan babesik jaso zenuen?**

Ni abentura honetan hasi nintzen garaian, orain dela hamabost bat urte, transexualitatea oso estigmatizatua zegoen, etxetik joan beharra zeneukan: gurasa-ak negarrez, psikologoarengana joateko, pertsonalitate bikoitza

daukazula... Hasieran, gainera, zure gorputzean egin behar dituzun aldaketak beldur handia ematen dizute.

**Hasiera-hasieratik zenekien ebakuntza egingo zenuela?**

Hasieran ebakuntza gaitz guztien salbazio moduan saltzen digute, baina urrats bat besterik ez da. Gauzarik erradikalena sexu psiko-sozial aldaketa da, gizariteari begira. Ebakuntzaren aurretik gizaritean modu batera jokatzeko duzu eta ostean beste rol sexual batekin egiten duzu.

**Une batetik bestera ere ez da egingo...**

Prozesu luzea da, lehenik onartu egin behar duzu, gero indarrak batu, izu eta zalantzei aurre egin. Galdera asko daude: nola osasuntsu egonda ebakuntza egin eta hormonatzen hasi gorputza eraldatzeko? Baina azkenean irtenbide bakarra dela konturatzen zara. Hasieran gorputzari egindako erasoak dena, azkenean askapen bihurtzen da, zu zeu zara azkenean.

**Era berean, gizariteak onartzen zaitu?**

Gizarite honetan ez dago zuri-rik edo beltzik, dena da erlatiboa. Ebakuntza soluzioa ez bada ere, lagundu egin zaitzake.

**Problematika gero eta errazago dabil gizarteratzen?**

**"Onarpenaren unetik bertatik badakizu baztertuen putzura botako zaituztela bizi guztirako"**

**"Sekula ere ez litzaidake burutik pasako prostituzioa egitea, baina ez zait besterik geratu"**



Arrasateko Emakume Txokoak gonbidatuta egin zuen hitzaldia Juana Ramosek.

JON BEREZIBAR

Arazoetako bat NAn dago, agirian ageri den sexua ez daterrelako benetakoarekin bat. Horrek bereizkeria asko dakar, batez ere oinarrizko eskubideei dagokienez, osotasun fisikoa eta bizi izateko eskubidea, besteak beste. Izan ere, transexual izate-

agatik bakarrik bizitza arriskuan jartzen duzu sarri. Orain dela hile batzuk Portugalen kalean bizi zen emakume transexual bat bahitu zuten hiru mutilek, hiru egunez torturatu, putzu batera bota eta han utzi zuten hiltzen. Agintariak diote itota hil dela eta Eliza ere badago tartean, transexualak ziur probokatu egingo zituela adieraziz. Egia da erailketak Estatuan urtetan ez direla egon, baina erasoak, irainak... **Zuk zuzenean jaso duzu erasorik?**

Lana bilatzerakoan, urrutirago joan barik. Sexuan egin behar izan dut lan bi urtez, bestelako lanik aurkitzen ez nuela. Nekazaritza Ingeniaritza Teknikoa ikasi nuen nik eta lan irteera bakarria prostituzioa izan da, inon nahi ez nindutelako. Sekula ere ez litzaidake burutik pasatuko prostituziora dedikatzea, jaso dudun hezkuntzarengatik, baina ez dut beste irtenbiderik izan, eta oso gogorra izan da.

**Egoera horren aurrean, beraz, zuentzat berebizikoa izango da lege berriaren onarpena, hau da, NAn sexua aldatzen baimenduko dizuen?**

Diskriminazioarekin amaitzeko hasiera besterik ez da, baina oso pozik gaude lehen urrats hori emango delako. Mugimendu transexualaren aldarrikapenak islatzen ditu: sexua eta ize-na legalki aldatu ahal izatea administrazio-prozedura arrunt baten bitartez eta genitalen ebakuntza ezinbestekoa ez izatea, transexual guztiak ez daude-eta prest erabaki horretarako. Ebakuntza guztiak ez dituzte emaitza onak ematen, gainera, batez ere neskatik mutilera aldatzen diren transexualetan. Gizarite-justizia kontua da, giza eskubideena, bazterketarekin amaitu behar da. Askok transexual izateagatik bakarrik kalean daude lotan eta erasoak daude, bizitza arriskuan dute horregatik bakarrik.

## 'Garapen iraunkorra' liburua aurkeztuko dute eguenean Arrasaten

Amaia Lizarralde eta Itziar Eizagirre egileek aurkeztuko dute Monterron kultura etxean, 18:30ean

Goreti Elortza

Amaia Lizarralde arrasatearrak eta Itziar Eizagirre donostiarrak idatzi dute liburua. *Garapen iraunkorra. Garatzeko bizi ala bizitzeko garatu* du izenburua eta Alberdania argitaletxeak argitaratu du.

Liburuaren gai nagusia garapen iraunkorra da, izenburuak dioen moduan. Giza premiei eta ekosistemari egokitutako gestio modua da garapen iraunkorra. Eta idazleen iritziz, ez da utopia, lor daitekeen zerbait baizik. Horretarako, ordea, errotik aldatu beharko ditugu denok geure pentsamolde eta jokabideak, liburuan azaltzen dutenez.


Gai horren inguruan, mundu mailako zein Europa eta EAEko erreferentzia ugari bildu dituzte. Sei ataletan barrena,

garapen iraunkor kontzeptuaren esangura eta inplikazioak azaltzen dituzte, eta, horrekin batera, Tokiko Agenda 21ez ere jarduten dute.

### IDAZLEEN INGURUAN

Itziar Eizagirre Zuzenbidean lizentziaduna da eta Ingurumen Zuzenbidean masterra du. Garapen iraunkorraren eta herritarren parte-hartzearen ekimenean aspaldi ari da eta lanbidez ere alor horretan dihardu gaur egun. Amaia Lizarralde arrasatearra Ekonomian lizentziaduna da eta EHUUn irakasle. Horrez gain, Ingurumen Zuzenbidea masterrean ere irakasle dihardu, beste gauza batzuen artean.

Arrasateko Monterron kultura etxean aurkeztuko dute liburua bi egileek eguenean, ekainak 1, 18:30ean.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Itziar Eizagirre eta Amaia Lizarralderen liburuaren azala.



J.B.

Egubakoitz arratsaldean hileko azken barikuko elkarretaratzea egin zuten presoek alde.

## Jon Agirreren alde ehunka lagunek egin zuten lanuztea

*Guardia Zibilak bi herritar atxiki eta hainbat manifestari identifikatu zituen San Andreseko Fagorreko elkarretaratzean*

Jon Berezibar

Erantzun zabala izan zuen egubakoitzean Ion Agirre Herri Ekimenak deitutako lanuzteak. Ekimeneko ordezkarien arabera ehunka lagunek egin zuten bat deiarekin eta Alde Zaharrari dagokionez, %90ekoa izan zen geldialdia. Era berean, ikastetxeetan ia erabatekoa izan zen lanuztea eta Fagorreko hiru lantokiek ere jarduna geratu zuten 12:30etik 13:00etara bitartean, Euskadiko Kutzako eta Udaleko langileekin batera.

Lanuztearekin batera elkarretaratzea egin zuten eguerdian herriko plazan eta arratsaldean, hileko azken egubakoitza izanda, kontzentrazioa egin zuten 19:30ean. Ekitaldi horiek eta aurreko zapatuan egindako manifestaldiak osatu dituzte herri ekimenak deitutako mobilizazio deialdiak.

### GUARDIA ZIBILA ZELATAN

Hainbat herritarrek hala salata, gainera, Guardia Zibila herrian zelatan ibili zen eta San Andres auzoan kontrola ipini

zuten eguerdian, Fagorreko langileak bildu ziren lekuan. Era berean, guardia zibilek elkarretaratzeetan argazkiak ateratzen zebiltzan lagun bi ordu-betez atxiki eta manifestari batzuk identifikatuta, pankartak kendu zizkieten.

Gertaeren gainetik, hala ere, herri ekimeneko ordezkariak "arrakastatsutzat" jo zuten jasotako erantzuna eta hala adierazi zuten arratsaldean egindako bigarren elkarretaratzean.

"Presoen eta errepresaliatu politikoen" eskubideekin jarraituz, mobilizazioak egongo dira egubakoitz honetan. "Baldintza demokratikoak berma daitezen" eskatzeko manifestaldia egongo da Seber Altube plazatik irten da, 19:30ean.

## Herri eskolak jaia ospatu zuen

A.G.

Arrasate Herri Eskolak jai handia ospatu zuen eguenean. Bedoñabe, Musakola eta Erguineko ikastetxeetako ikasleek ondo baino hobeto pasatu zuten egun hartarako propio antolatutako ekitaldiekin.

Bedoñaben, Pirritx eta Porrotx pailazoen *Maite zaitut* ikuskizunarekin izugarri gozatu zuten umeek. Erguineko hurren zirenek, berriz, Detraka antzerki taldearen *Zirkus Mirkus* antzezlanean egin zuten barre, jolas eta kantu.

### BEDOÑABEN EGIN ZUTEN TOPO

Pirritx eta Porrotx eta Detraka taldearen emanaldiak bukatu eta gero, 16:00ak aldera, Bedoñaben batu ziren ikasle zein irakasleak. Horretarako, Erguineko kalejira egin eta saltoka iritsi ziren Bedoñabera.

Hala, Bedoñaben jarraitu zuten guztiek jaiarekin; gurasoek barne. Han, txosnak jarrita zituzten Arrasate Herri Eskolako arduradunek eta ume, guraso zein irakasleek bat eginda eman zioten amaiera jaiari 18:00ak aldera.



GOIATZ ARANA

Ikasle batzuek Pirritx eta Porrotxen bisita jaso zuten; besteek Detraka taldearena.

# Erretiratu bazkariak erantzun bikaina aurten ere

*Bero handia egin arren, erretiratu ugari animatu zen dantzara Arrasateko jaian*

Goreti Elortza

Musakolako kiroldegian 900 bat erretiratu batu ziren bazkari erraldoian. SUDC elkar-  
teak eta Arrasateko Udalak antolatu dute aurten ere Erretiratu-  
Eguna, eta urtero bezala erantzuna oso ona izan dela aitortu digute.

65 urtetik gorakoen jaia da Erretiratu-  
Eguna eta 40 urte baino gehiago dihardute egun hori ospatzen. Eta beste horrenbeste urtean jarraituko dutela diote antolatzaileek.

Auzolagunek prestatutako bazkaria gustukoa izan zuten han batutakoek. Zerbitzarien lana ere oso ona izan zela azpimarratu zuten hainbat eta hainbat erretiratutako.

## NAGUSIENI OMENALDIA

Bazkalondoan, gizon eta emakume nagusieneri opari bereziak egin zizkieten Inazio Lakuntza, Jenaro Lekuona eta Andoni Altzelaik, besteak beste. Aurrekoa ere dantzatu zieten.

**"Oso gustura bazkaldu dugu eta giroa itzela izan da, errepikatze moduan..."**

Omendutako gizona Ladislao Guinaldo izan zen (95 urte) eta andrea Marina Sanchez (97 urte). Txapela, lore-sorta eta beste opari batzuk jaso zituzten. Ladislao 28 urte daramatza bazkarira joaten, erretiratu zenetik. Orain dela urte batzuk bazkalondoan zozketatzen diren oparietatik bi laguntzat Benidormerako bidaia tokatu zitzaio-  
la komentatu zigun Guinaldok.

## ETA BAZKALONDOAN, DANTZARA

Opariak eman ondoren musika egon zen kiroldegian. Gainera, Arrasateko dandek emandako opariak zozketatu zituzten, 70 opari denera.

Azkenik, antolatzaileek eskerrak eman zizkieten gerturaturatutako parte-hartzaile guztiei eta Gurutze Gorriko langileei.



JOSETXO ARANTZABAL

Antolatzaileek opariak eman zizkieten erretiratu nagusieneri, Ladislao Guinaldori eta Marina Sanchez.



JOSETXO ARANTZABAL

Musakolako kiroldegia bete egin zen zapatuko erretiratu bazkarian.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Meza ostean, trikitilariak eta luntxa izan zituzten Murgiako auzotarrek.

## Auzo lokala eraikitze lanak hastear dira Oñatiko Murgia auzoan

*Irail aldera auzo lokalaren inaugurazioa eta Asentzio ermitaren mendeurrena ospatuko dituztela aurreratuta dute*

M.B.

Asentzio jaiak ospatu dituzte asteburuan Oñatin Murgiako auzotarrek. Atzo, domeka, ospatu zuten egun handia, eta, meza ermitako erretaularik gabe entzun zuten arren -zaharberri-  
tzera eroanda dute eta uztaile al-  
dera egongo da berriz ermitan-,  
giroa aparta izan zen. 30 baserrik  
osatzen dute Murgia auzoa, eta  
auzotarretako asko batu zen atzo  
jaiaren bueltan.

Auzotarrak batzeko leku fal-  
ta izan da, hain justu, Murgiako

auzotarren kezketako bat azken urteetan; izan ere, gaur egun ez dute auzoan lokalik. Dena den, hilabete gutxi barru egoera bes-  
telakoa izango da. "Auzo lokala egiteko proiektua dagoeneko Udalean dago eta hamabost bat egunean-edo hasiko dira lokala eraikitze lanak", esan digu Estanis Usandizaga auzo alkate-  
ak. Hala, "auzotarrek batzeko lekua izango dugu", gehitu du.

Irailerako bukatuko dituzte lanak, eta, lokala inauguratze-  
rekin batera, Asentzio ermitaren  
100. urtemuga ospatuko dute.

## GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK KOOP. BATZAR OROKORRA

### DEIALDIA

Honen bidez, 2006ko ekainaren 1ean, osteguna, egingo dugun urteroko ohiko batzar orokorrerako dei egiten dut.

Batzarra Arrasateko Saiolaneko bilera gelan (Nafarroa Etorbidea, 2) izango da, 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarrenetan.

### GAI ZERRENDA

1. Batzarreko akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
2. 2005eko maiatzaren 20ko batzar orokorreko aktaren onarpen txostena irakurtzea.
3. 2005eko kudeaketa txostena azaltzea.
4. 2005eko kontuen berri ematea eta emaitzen erabilera onartzea.
5. Zaintza Batzordeko kideen txostena irakurtzea.
6. 2006ko kudeaketa plana eta aurrekontua onartzea.
7. Borondatezko ekarpenei interesak ordaintzeko proposamena.
8. Errektore Kontseiluko kide berriak aukeratzea.
9. Zaintza Batzordea berritzea.
10. Errektore Kontseiluko eta Zaintza Batzordeko kideek beren karguak onartzea.
11. Galderak eta eskaerak.

Arrasaten, 2006ko maiatzaren 12an.

## Albiste izango da

BERGARA | HERRI OSOAN BANATUKO DUTE, DOAN

## 'Goienkaria'-k jaietako gehigarri berezia banatuko du eguaztenean

Aurtengo Pazko jaietako egitaraua eta beste hainbat albiste jasozten dituen zenbaki berezia banatuko du etxez etxe datorren eguaztenean *Goienkaria*-k. 40 orri izango ditu zenbaki berezi horrek, horietako gehienak koloretan.

Egitarauaz gain ekarriko du, besteak beste: elkarriketa Jai batzordeko kide bati, Txosna batzordearen proposamena, moto-kros txapelketaren xehetasunak, Miss eta Mister jatorren planak jaietarako eta umeen barrakak noiz izango diren merkeago. Bergara osoan banatuko dute, doan.

ARRASATE | UMEENAK ZAPATUETAN IZANGO DIRA

## Gaur, hilak 29, hasiko dira nagusien danborradarako entseguak

San Juan jaietako danborrada antolatzen duen SUDC elkarteak kideek jakinarazi dutenez, nagusien danborradarako entseguak gaur, astelehena, hasiko dira. Astelehen eta eguaztenean egingo dituzte entseguak, 20:30ean, San Viatorren, Arrasate pasealekuan. Danborrada, berriz, ekainaren 23an izango da. Umeen danborradari dagokionez, joan den zapatuan egin zuten lehenengo entseguak, eta aurrerantzean ere, zapaturako entseutako dute neska-mutikoei, 11:00etan. Umeen danborrada ekainaren 17an izango da.

Bestalde, Udaleko Ingurumen Saitetik jakinarazi dutenez, hil bukaerara arte zabalik dago Garagartzako ortu ekologikoetan izena emateko epea. Horretarako jo Udaleko Ingurumen Sailera.

DEBAGOIENA | ESKORIATZAN ETA OÑATIN IZANGO DIRA

## Bruesa saskibaloit taldea bisitan izango da gurean bihar, martitzena

Bruesa saskibaloit taldea ibarrera etorriko da bihar, martitzena. ACBra igoera lortu du taldeak eta igoera hori Arantzazuko Amari eskaintzera etorriko dira saskibaloit taldeko jokalariei eta arduradunak. Horren aurretik, baina, Eskoriatzan geldialdia egingo dute Eskoriatzako Udaletik jakitera eman dutenez. Iturri beren arabera, 13:30ean egingo diote harrera taldeari Udalen agintariei, herriko plazan.

Eskoriatzako ekitaldia bukatu eta gero, Oñatira joango dira eta han bazkaldu egingo dute Bruesakoek. Bazkaldu eta gero, Arantzazura igoko dira taldekoak eta 18:00etan, hain justu ere, eskainiko diote Arantzazuko Amari martitzenean eskuratutako ACB Ligara igoera.

ELGETA | EKAINAREN 3AN IZANGO DA

## Eskola Publikoaren aldeko desfilean parte hartzeko jendea behar dute

Ekainaren 3an moda desfilea izango da Espaloian, 22:30ean, eta jasotako dirua Eskola Publikoaren aldeko jaira bideratuko dute. Gurasoek ez ezik, edozein herritarrek har dezake parte eta prest daudenak Guraso Elkartearekin jar daitezke harremanetan, 680 44 91 52 telefono zenbakira deituta.

Besteak beste, Elgeta Piel, Mariasun, Loramendi, Elkoro Bitxiak, Jolas eta Markeliñe dendeak laga dituzte arropa eta osagarriak desfilearako. Horrez gain, egongo da bestelako sorpresarik ere, eta eskolako umeek dantzaz eta abestiz jantziko dute ikuskizuna.

ARAMAIO | GABON OSTERAKO BUKATUKO DITUZTE

## Gaur, astelehena, hasiko dira haur eskola eraikitze lanak

Gaur, astelehena, hasiko dira haur eskola eraikitze lanak. Hala xe iragarri du, GOITBko *Debarri* saioan, Aramaioko alkate Meritxe Mondragonek asteon.

Alberto Gorritibereak gidatzen duen saioan azaldu zuenez, "kostata, baina, azkenean lortu dugu haur eskolaren obrak esleitzea". Udaletxea berri zuten enpresa berak egingo ditu lanak, Mauricio Arregi enpresak, hain justu ere. Esan bezala, gaur hasiko dituzte lanak eta alkateak aurreratu zuenez, "Gabon osterako bukatuko dituzte eta irail edo urri aldera hasiko dira matrikulak egiten".

## Hitzorduak



## BOLUNTARIOAK BEHAR DITUZTE GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEEK | Ohiko ekintzetan, tailerretan, azoketan... laguntzaren premia dute

Debagoieneko gobernu kanpoko erakundeek euren eguneroko lanekin laguntzeko gertu dauden boluntarioak behar dituzte, eta horretarako deia zabaldu dute. Hainbat motatako lanekin behar dute laguntza: ekitaldiak, azokak, tailerrak... antolatzeke, Harreman Dendan egoteko, eta beste hain-

bat. GKEetan interesa dutenek parte hartzeko moduen gaineko informazio gehiago eskuratzeko aukera izango dute.

Debagoienean 11 GKE daude, eta 53 lagun ari da. Eurekin kontaktuan jartzeko helbidea hau da: [harremandenda@yahoo.es](mailto:harremandenda@yahoo.es).

## ANTZUOLA |

• **Adobe Acrobat programa erabiltzen ikasteko aukera**  
Adobe Acrobat programaren gaineko ikastaroa emango dute hilaren 1ean, eguena, KZgunean, 11:00-13:00.

## ARAMAIO |

• **Asteburu bat Euskal Herrian delako ikastaroa**  
Ikastaro hori emango dute gaur, astelehena, KZgunean, 11:00-13:00.

## ARRASATE |

• **Garapen iraunkorraren inguruko liburu aurkezpena**  
*Garapen iraunkorra* delako liburua aurkeztuko dute Itziar Eizagirrek eta Amaia Lizarralde eguenean, hilak 1, Monterronen, 18:30ean. Debagoieneko GKEek antolatuko dute.

• **Bioarkitekturaren inguruko hitzaldia izango da**  
Bioarkitekturaz berba egingo du Amaia Agiriano arkitekto aretxabaletarrak ekainaren 1ean, San Viator Handi gunean, 19:00etan. Arizmendi ikastolako antolatuko dute.

• **Arrasate Musikalen izena emateko epea zabaldu dute**  
4 urtetik gorako hezkuntza helduendako ere bai-, instrumentu-hezkuntza eta dantza eskolak daude, besteak beste. 17:00-20:00 da idazkaritza ordutegia.

## BERGARA |

• **Buru-gaixotasuna dutenendako lan ekimenak**  
Agifeseak, buru-gaixotasunak dituztenen senideen Gipuzkoako elkarteak, *Segi Iru: iniciativa laboral de familiares para enfermos mentales* delako hitzaldia antolatu du etziraiko, eguaztana, Miguel Altuna ikastetxean, 19:00etan.

• **Musika eskolan matrikula egin daiteke**  
Eskolan bertan egin behar da matrikula. Eskaintzen dira instrumentu musikalak, aurrehizkuntza eta hizkuntza musikalak, biolina, musika hezkuntza berezia, gitarra eta baxu elektronikoa eta taldeetan parte hartzeko aukera.

• **UNEDen udako ikastaroetan izenemate epea**  
Etzi, eguaztana, bukatzen da UNEDen udako ikastaroetan izena emateko epea. Aurten, 25 ikastaro eskaintzen dituzte. Argibide gehiago, honako helbidean: [www.uned.es/ca-bergara/udaikastaroak/uda06/portada.htm](http://www.uned.es/ca-bergara/udaikastaroak/uda06/portada.htm).

## DEBAGOIENA |

• **Aldi baterako egonaldiak eska daitezke Aita Mennin**  
Aita Menni egoitzan aldi baterako egonaldia eska daiteke. Pertsona nagusiekin bizi diren eta haiek zaintzen dituzten familiei dago zuzenduta deial-

dia. Maiatzaren 31 da izena emateko mugaeguna.

• **Aramaioko ibarrean mendi martxa egingo dute**  
Aramaioko ibarrari bira emateko Aiba! mendi martxa antolatu du Besaidek. Argibideak: [www.aiba.besaide.org](http://www.aiba.besaide.org).

• **AHTren aurkako bizikleta martxa egingo dute**  
*Pedalkadaz pedalkada AHTrik ez bizikleta martxa* deitu du Arrasateko AHTren aurkako batzarrak ekainaren 3rako. Eskoriatzako plazan batuko dira 11:00etan; 11:30ean, Aretxabaletatik pasatuko dira, eta 12:00etan, San Andresko autobus geltokitik.

## ESKORIATZA |

• **Ikasleek bertso emanaldia egingo dute**  
Herriko ikastetxeetako LHko 4., 5. eta 6. mailako ikasleek bertsoetan egingo dute. Hilaren 31n, eguaztana, izango da saioa, Ibarraundi museon, 17:30ean.

## OÑATI |

• **Ebanjelioaren eta gizartearen gaineko berbaldia**  
*Ebanjelioa eta gizarte bazterrak* delako berbaldia egingo dute Iñigo Lamarckak, Arartekoak, eta Jose Arregi frantziskotarrak ekainaren 1ean, kultura etxean, 19:00etan, Elkar Hezik antolatuta.





ASTELEHENKO GOIENKARIA

Gipuzkoako diputatu nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarriren eskutik jaso zuen saria Joseba Lorenzok, SEIN Taldeko zuzendari nagusiak.

GIPUZKOAKO INDUSTRIA SARIAK | INDUSTRIARAKO ZERBITZUEN ENPRESA SARIA JASO DUTE

# SEIN Taldeak Merkataritza Ganberaren saria jaso du

*Epaimahaiak balio handia eman dio taldea osatu izanari eta izan duen ibilbide eredugarriari*

*Taldea 50 profesionalek osatzen dute eta 8.000 metro koadro ditu bost egoitzatan banatuta*

## Asteleheneko Goienkaria

Gipuzkoako Merkataritza Ganberak Industriarako Zerbitzuen Enpresa saria eman dio SEIN Taldeari, Euskadin industria-horniduraren sektorean zerbitzu-enpresa berritzailea den bati, eta ekitaldi horretan, halaber, beste enpresa garrantzitsu batzuei ere eman dizkiete sariak, hala nola: MCC Taldea, JEMA, Cie Automotive eta Orni lantegiei.

Sari horren bidez, SEIN Taldeak nolabait ere emaitza bat jaso du familiako hiru enpresa haiek –Almacenes Etxeberria, Lausa eta Memesa– erakunde

sendoago bihurtzeko emandako urratsagatik; aldi berean, zerbitzurako gaitasun handiagoa eta garai berrietara egokituagoa egoitea lortu du.

Epaimahaiak balio handia eman dio, hain justu ere, “abian jarritako ekimen horren ibilbide eredugarriari”, “hedadura-

faltaz, ahultasunaren gainetik eraginkorrak izateaz, eta etorkizunean bere bezeroek, Euskadiko industria-talde handienek, behar duten zerbitzu-maila erdiesteko moduz egindako gogoetaren ondorio izan dena”.

Saria jasotzean, SEIN Taldeko zuzendari nagusiak, Joseba Lorenzok, esker oneko hitz batzuk zuzendu zizkion SEIN Taldeko lantalde guztiari: “Profesional talde onenarekin bakarrik eskain daitezkeelako zerbitzurik onenak”, haren esanetan. Horrekin batera, bezeroendako ere izan zituen esker oneko hitzak Joseba Lorenzok: “Planteatu dizkiguten erronkei erantzunez zerbitzu berritzaileak eskaintzeko gaitasuna eman digutelako, Burdineriaren Industria Hornidura bezalako sektore zaildu hone-



ARTXIBOA

Irudian, SEIN Taldeak Arrasaten duen egoitza.

**Talde osatzean zerbitzurako gaitasun handiagoa lortu du SEINEK**

**SEIN Taldea osatu zuten hiru familien erabakia goraiatu zuten sari ematean**

tan”. Baina, bereziki, SEIN enpresaren jabe diren hiru familiei zuzendu zizkien esker hitzak, “bere garaian bat egiteko hartu zuten erabaki hura egokiena izan zela frogatzen duelako sari honek”.

SEIN Taldea 50 profesionalek osatzen dute, 8.000 m2 ditu hainbat instalaziotan, bost egoitzatan banatuak, eta estrategikoki kokatuak daude Azpeitian, Arrasaten, Abadiñon, Aretxabaletan eta Oñatin.

# Iritziak



## Isilpekoak

**943 25 05 02**  
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

### • Aparkaleku gabezia Arrasaten, arazoa larritzen

Aparkaleku gabeziaren aurrean "Udala arazoa arintzen saiatzen baino ahalik eta eragozpen gehien jartzen saiatzen" dela kontatu digu Arrasateko irakurle batek. Hark esan bezala, "ezinezkoa da erdialdean aparkatzea, eta lekuak kendu besterik ez dute egiten edo aparkamendu mugatua ipini". Irakurle horrek dioenez, "gura dutena aparkalekuak erostera bultzatzea da, eta isunekin dirua atera besterik ez da gura". Irakurleak dioenez, "ulergarria da lanegatik aparkatzeko tokiak kentzea, baina arazoa txikiagotzeko ere ez da ahaleginik egiten".

### • Ibilaldira joateko autobusei txaloak

Irakurle batek jakinarazi digunez, "oso ondo" iruditu zaio atzo Pesak Elorriora joateko ipini zuen autobus zerbitzua. Goizeko 9etan hasi eta orduro autobusak egon ziren Arrasatek Elorriora joateko. Irakurle berak, baina, zerbitzu on hori salbuespena dela ere kezkatzen da: "Ea Ibilaldikoarekin eredu hartzen duten eta Arrasatek Elorriora joateko ganorazko linea ipintzen duten" dio hark, "ze ez baita ulergarria ondoko herrira joateko ia autobusik ez izatea".

### • Ipintzako txapelketan neskek ordurik txarrenetan

Beste irakurle batek Bergarako Ipintza futbol txapelketari buruzko keza helarazi du. Nesken talde baten jokatzeko irakurleak eta kontatutakoaren arabera, nesken partiduak beti ordutegirik txarrenetan ipintzen dituzte, adibidez, "zapatuetan gaueko bederatzietan edo besteek gura ez dituzten orduetan". Neskekiko begirune gehiago eskatzen du irakurle futbolzale horrek, "beti mutilei lehentasuna eman barik".

## Sarean harrapatuta

### Prestatu dituzu udako oporrak?

Geroz eta lehenago hasten dira batzuk udako oporrak prestatzen. Izan ere, nora joateko asmoa dagoen, urte hasieran-edo hasi beharra dago oporrak prestatzen, gero ez bada nahi dirutza ordaintzea. Beste

batzuek, ordea, nahiago izaten dute azken momentura arte itxoin eta orduan erabaki nora joan. Gaiaren gainean galdetu dute *Goiena.net*-en: Prestatu dituzu oporrak? Hemen dituzue erantzun batzuk.

### URRUTIRA JOATEKO AURRETIK EGIN BEHAR

Nik prestatu ditut, beharko! Bestela kristoren prezioak egoten dira! Argentinara joateko asmoa daukagu eta ez bazara mugitzen aurretik ezinezkoa da.

Argentina / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### EZIN DUGU BIDAIA HANDIRIK EGIN

Kubara joateko asmoa genuen otsaila aldean. Ibili ginen begira prezioak-eta, baina oso garestia da! Gainera etxea ordaindu behar, umeak,... ezin da bidai handirik egin garai hauetan.

Kuba / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### GIRONA ALDERA JOANGO GARA BIZIKLETAN

Ez. Ideia bat badugu gutxi gorabehera baina ez gara jarri horretan. Bizikletan egingo dugu bidaiaren bat, Girona aldera. Hala ere, ez dugu nahi gure burua txikitzerik; ahal duguna egingo dugu bizikletan, baina disfrutaztea da gure helburua.

Bizi / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### DERRIGORRA DA OPORRETAN JOATEA?

Derrigor joan behar da oporretan? Edozein zubi edo aste bukaera luze dagoenean hor joaten gara autoa edo hegazkina hartuta, ardiak bezala. Ez bazara kan-

pora irteten jai duzunean araroa zara, ardi beltza. Eta udan berdin. Zenbat eta urrutirago joan badirudi orduan eta hobeto pasa behar duzula. Askotan ez da hala izaten, ordea. Ni joango naiz oporretara, baina gogoa baldin badaukat eta ahal dudana eta nahi dudana lekura.

Aitor L. / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### FURGONETA HARTUTA JOANGO GARA

Nik ez ditut prestatu, baina urterokoa egingo dugu. Furgoneta

hartu eta norabait joan, Europako herrialde batzuk bisitatzea. Aspaldian modan jarri da furgonetarena eta guk ere duela pare bat urte erosi genuen. Benetan plan bikaina da, ez duzu beste ezerekin beharrik.

Amagoia / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### CADIZEN HARTU DUGU APARTAMENTUA

Guk urtero koadrilan errentan hartzen dugu apartamentua Cadizen eta aurten ere egin dugu. Ekainean hasten bazara, akabo! Ez da ezer egoten eta daudenak leku txarrean edo oso garesti.

Jon / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### ORAINDIK EZ NAIZ HASI UDAN PENTSATZEN

Ez. Oraindik ez nago udako oporretan pentsatzeko moduan. Urrun joan beharko banu aurretik ibili beharko ginatke, baina nola ez dudana ezer pentsatu ez dut ezer prestatu aurretik.

Ibon / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### UME TXIKIAREKIN EZIN URRUTIRA JOAN

Ume txikia daukagu eta momentuz ezin oso urrun joan. Hemen gertu egin beharko ditugu oporrak. Ume txikiarendako ez da ona autoz kilometro asko egitea eta.

Batenbat / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

## www.goiena.net

Oso goiz hasten da jendea udako oporrak prestatzen. Prestatu dituzu?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo [www.goiena.net](http://www.goiena.net) webgunera

## Halaxe erantzun digute

Europar Batasunak etorkin irregularren sarrera geratzeko harturiko neurriei zer deritzezu



**DIOUMA DIAJNE** |  
ABOKATUA

Pobreziak irauten duen bitartean jendea nola edo hala saiatuko da Europara igarotzen, neurri eta militarren gaintetik. Pobrezia da arazoa, ez emigrazioa, eta Hirugarren Munduko herrialdeetako ekonomietan inbertitu behar da, eta ez puntako zaingo teknologietan, aurrera egin gura bada.




**BEÑAT ARZADUN** |  
MUNDUKIDE

Horren da handia europar aberatsun eta afrikar behartsuen arteko diferentzia, zeinen kosta egingo zaigun horri eutsi diezaiokeen behar bezalako hesi garairik eraikitzea. Konponbidea ez dago hesi gero eta handiagoak jasotzean, desberdintasunak gutxitzean baizik.



**ITZIAR LAMARAIN** |  
ARRASATEKO PP-KO ZINEGOTZIA

Egin ezin daitekeena da immigrazio-lege bat gainontzeko partiduekin eta Europarekin kontsultatu barik hartu eta gero Bruselara jo laguntza eske. Eskuetatik ihes egin dio arazok Gobernuari eta oso gai larria da. Horrela ezin da, gainez egin eta laguntza eske doaz orain.



**IÑIGO TRUEBA** |  
HARREMAN

Herrialdeekin kolaboratu egin behar da eta ez militarren bitartez oztupoak ipini. Neurriak gaizki iruditzen zaizkit, konponbidea herrialde txiroen ekonomia sustatzean dago, arrantzarako kanaberak ematen edo kooperatibak eta enpresak sortzen, bere garaian hemen egin zen bezala.



## Egunkarietako harribitxiak

### GIPUZKOA, GIZARTE OPAROA BAINA ZAHARTUA

Aldundiak batutako adituak aztertzen ari dira Gipuzkoaren eboluzio etorkizuna. Munduko aberatsenatarikoa da, baina baita zahartuenatarikoa ere. 2050. urtean, Gipuzkoan jaiotako populazioaren batez besteko adina 55 eta 60 urte artekoa izango da.

'El Diario Vasco'  
2006-06-27



### INDARKERIA ATE JOKA ATENCON

Aihotzak dira San Salvador Atenco nekazari herriko biztanle gehienetan lanabesa. Mexikoko poliziaren oldarraldiari aurre egiteko erabili dituzte aihotzak hil honen hasieran. Izan ere, hango lore saltzaileen kontrako poliziaren oldarraldi gisa hasi zenak soka luzea izan du: hildako bat, zauritu eta atxilotu ugari eta bortxatutako dozenaka andre. Maiatzaren 3an oldartu

zitzaien polizia San Salvador Atenco herriko lore saltzaileei eta horren ondotik hainbat lagunek bizi izandakoa jaso zuen atzo Gotzon Herrosillak Berria-n. Maria Sostres eta Cristina Valls boluntario kataluniarrak han zeuden eta gertatutako guztia bizi izan zuten. Hain zuzen ere, bi kataluniarren testigantza ere jaso zuen Herrosillak bi orrialdeko erreportajearen.

'Berria'  
2006-05-28



## Tira, tira...



Montxo 'Berria' | 2006-V-28

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'Berria'

#### ELKARRIZKETA

"Edozein kasutan gehiegi luzatzen ari da mahaiaren osaketa. Zeren bai Eginoko Mahaiak bai Nazio Eztatidaguneak aurretiaz egindako lanaren helburua zen aukera iristen zen unean denbora galtzea ekiditea; horretarako lana aurreratzea. Ba har ditzagun bi foroan emaitzak eta eztabaida dezagun".

Javier Caño  
2006-05-28

### 'Gara'

#### ELKARRIZKETA

"Prozesuaren helburua da gaitzitatea akordio demokratikoaren bidez Euskal Herriak bizi duen gatazka politiko eta armatua. Gobernuari saiatzeko ari da prozesua desnaturalizatzen iritzi publikoari esanez helburua dela bakea ezartzea. Guk bake prozesuaren alde egiten dugun apustua sendoa da, baina PSOEek kolapsa dezake".

Pernando Barrena  
2006-05-28

### 'El Diario Vasco'

#### ELKARRIZKETA

"Ez du zentzurik ETArekin elkarrizketa hasierako egoteak eta, hain justu, hasiera emateak, epaileak Batasuneko buruak deitu dituen euren jardute politikoa egiteagatik. Horrek ez du zentzurik. Zuzenbideko maximo batek dio, zuzenbidea legeen arabera erabili behar dela, baina baita testuinguru soziala kontuan hartzen ere".

Josu Jon Imaz  
2006-05-28

### 'Noticias de Gipuzkoa'

#### ELKARRIZKETA

"Berba asko egiten da deslokalizatzen ari diren enpresen gainean, baina hasi behar ginateke berba egiten, baita ere, sorterritik kanpora ezartzen ari diren enpresez eta ahalbidetzen ari direnak negozio bolu-mena eta lanpostu kopurua handitzea sorterritik eta sorterritik kanpo ezarritako lantegietan".

Agustin Eizagirre  
2006-05-28

## Zorroztalea

### Inon ardura



Vatikanoan izandako Espainiako enbaxadore berriaren aurkezpen ekitaldiak aukera eman zion Eliza Katolikoari egungo espainiar gobernuaren hainbat ekimen eta norabideren aurka egiteko. Era neurtuan, Benedikto XVI.ak, Aita Santuak, gogorarazi zion Francisco Vazquez espainiar enbaxadoreari bikote homosexualen elkartzek ezkontza zibilekin berdindu dituen politikaren aurka dagoela.

'La Vanguardia' | 2006-05-26

#### Jabier Arantzeta

Hasierako zati honek, ez dirudien arren, badauka tranpatxo polit bat. Badirudi kazetaria gertaera bat kontatzera mugatu dela, baina, nahi barik ala nahita, batek daki, garbi uzten du bikote homosexualen artekoak "elkartzeak" direla eta bestelakoak ezkontza.

Jesukristok aspaldi esan zuen bere erreinua ez zela mundu honetakoa, baina haren jarraitzaileek 2.000 urte daramatzate mundu hau nola gobernatu behar den esaten, bereziki larru asuntuan.

Oso bitxia pentsatzen zait Eliza Katolikoak duen ardura inork larrutan norekin egin behar duen erabakitze. Hasteko, euren artean ezer izateko denak mutil zahar izan behar, ondoren eurek erabaki emakumeak zer diren eta

zer ez diren, beti ere garbi utziz gutxiago direla eta, akabatzeko, euren tarteko izan edo ez izan, gizartean guztiok zer eta nola egin behar dugun agindu.

Niretzat tontokeria izugarri bat da mutil zahar izan beharra, baina hori esatera mugatzen naiz, hortik aurrera ez dut ezer egiten, ez dut mutil zahar izatea debekatzen, nire ustea bat izan edo beste izan, eurek jakingo dute zer egin. Baina eurak ez, larrutan beste era batera egin nahi dutenak hildakoan infernura bidaltzearekin konformatu ez eta bizi diren bitartean ere izorratuta bizi daitezen nahi dute.

Eta honen aurrean zer egin? Bada ahalik eta kasurik gutxien, eta ahalik eta gehien jo; izan ere bekatu izan edo ez izan, ez dago ezer norbere gustuko beste batekin, edo batzuekin, jotzea modukorik.

**"Oso bitxia pentsatzen zait Eliza Katolikoak duen ardura inork larrutan norekin egin behar duen erabakitze"**

**"Bekatu izan edo ez izan, ez dago ezer norbere gustuko beste batekin, batzuekin, jotzea modukorik"**

# KIROLA

- Ford Muğarrik berdinketarekin eman dio amaiera aurtengo denboraldiari | 18
- Oñatiko Herriko futbol txapelketa Txarrixak taldeak irabazi du | 20



Elena Lanuza  
Arrasateko Dragoi  
taldeko  
entrenatzailearekin  
egon gara | 16

## ALOÑA MENDI TALDEA

REAL UNION

# 3-0

ALOÑA MENDI

**Real Union** | Iruretagoiena, Perez (Marco, 89. min.), Zugarramurdi, Arregi, Irazoki, Aizpurua, Moreno, Idarramendi (Lasaga, 80. min.), Arrondo (Madariaga, 85. min.), Azpiroz (Urtizbera, 83. min.), eta Uranga (Jimenez, 72. min.).

**Aloña Mendi** | Elgarresta, Olalde (Iker, 72. min.), Iban, Julen, Roberto (Iñigo, 66. min.), Igartua, Unai (Henry, 59. min.), Aitor, Xabier, Jokin (Jon, 59. min.) eta Iñigo (Aritz, 72. min.).

**Golak:** | 1-0 Moreno (35. min.), 2-0 Azpiroz (37. min.), 3-0 Azpiroz (51. min.).

**Epaillea** | David Varillas. Treku eta Guadix izan ziren laguntzaileak.

**Bestelakoak** | Oñatitik bi autobus joan ziren zapatuan Irunera Aloña Mendi animatzera.

### Bikain

#### Denboraldia

Inork gutxi egingo zuen apustu denboraldi hasieran talde honen alde. Hala ere, lan gogorraren ondorioz, denboraldi bikaina burutu dute oñatiarrek. Zorionak!

### Kaskar

#### Ezer ere ez

Txalotzeko denboraldia egin dute, ezer kaskar egin dutenik ezin esan. Hala ere, 3. mailak azken unean ihes egin izanak amets asko zapuztu ditu. Egun hauetan bizitakoak datorren urterako balioko du.

### Esandakoak

“Partidu nahiko gogorra izan da eta ezin izan dugu irabazi. 3. mailako txartela azken jardunaldian galdu dugu, zoritxarrez”.

JON ANDER ELGARRESTA |  
ALOÑAKO JOKALARIA

“Zorigaiztoko jokaldi baten ondoren sartu digute lehenengo gola eta hor partiduak ihes egin digu.”.

AITOR ORUETA |  
ALOÑAKO JOKALARIA



JOSETXO ARANTZABAL

Aloña lider iritsi zen Irunera eta bigarren postuarekin etorri zen Oñatira.

**FUTBOLA** | IRUNGO GAL ESTADIOA GORRITXOZ BETE ZEN

# Azken jardunaldian galdu du Aloñak igoera txartela

*Irabaztea edo berdintzea nahikoa zuen Aloñak zapatuan, baina galdu egin zuten oñatiarrek; horrela, 3. mailara igotzeko ametsa bukatu da*

Arantzazu Ezkibel

Ezinezkoa izan zen. Jokalariak dena eman zuten eta zaleak gogotsu aritu ziren taldea animatzen. Baina Real Union Aloña baino gehiago izan zen eta ligako azken jardunaldian ez zuten hutsik egin irundarrek.

#### ZORITXARREKO JOKALDIA

Aloñako jokalariek gogotsu irten ziren Irungo Gal estadiora. Azken asteotan bizitakoaren ondoren, presio guztia alde batera utzi eta

irabaztera atera ziren Oruetaren mutilak. Irunera lider iritsi ziren oñatiarrek. Beraz, guztia alde zuten; berdintzea edo irabaztea nahikoa zuten lidertza mantendu eta datorren urtean 3. mailan jokatzeke.

Partiduko lehenengo minutuetan Aloña ondo kokatu zen zelaian. Erdialdea indartu nahi izan zuen Oruetak. Hala, hiru jokalarik ipini zituen zelaiaren zati horretan.

Etxeko taldeak irabaztea zuen beharrezkoa eta horretarako

gogor jokatu zuten. 35. minutuan, kórner baten ondoren, baloiak Aloñako jokalarik baten gorputzean jo eta sareetan sartu zen. Lehenengo gol honekin, igoerako ametsa zapuzten hasi zen.

**Lehenengo zatian Aloña ondo aritu zen, norgehiagoka kontrolpean zuen**

**Aloña Mendiko jokalariek hutsen ondorioz etorri ziren etxeko taldearen golak**

Eta are gehiago, bi minutura, Real Unionek bigarren gola egin zuenean.

#### ZALEEN BABESA

Bigarren zatian Aloñak berdinketa eskuratu beharra zuen. Baina berriro ere ezbeharreko jokaldi batean baloia galdu eta Real Unionek hirugarrena egin zuen. Etxeko taldeak partidua erabakita utzi zuen.

Oñatiarren ametsa zapuztuta, Irunera hurbildutako zaleek ez zuten etsi. Partidu amaiera arte animatu zuten taldea, datorren urtean izan beharko duela pentsatuta.

Partidu amaieran, Real Unionek txapelidun saria jaso zuen eta Aloñak, berriz, bigarrenaren saria. Jokalariak zaleei eskaini zieten emandako babesagatik.

ALOÑA MENDI TALDEA

PARTIDU GAZI-GOZOA | 3. MAILAKO AMETSA BERTAN BEHERA GERATU ZEN

# Zale eta jokalariak harro aurtengo denboraldian egindako lanarekin



JOSETXO ARANTZABAL

Aloñako jokalariak gogotsu zelairatu ziren Irunen.



JOSETXO ARANTZABAL

Zaleen babesa erabatekoa izan zen zapatuan.



ARANTZAZU EZKIBEL

20:15ean izan zen partidua, afaltzeko momentu benetan ona.



JOSETXO ARANTZABAL

Norgehiagoka gogorra izan zen, asko zegoen jokoan.



ARANTZAZU EZKIBEL


Manok ez du Aloñaren partidurik galtzen, zapatuan ere Irunen izan zen.

• ESANAK



JON ANDER ELGARRESTA | ALOÑAKO JOKALARIA

"Pena bat izan da azken jardunaldian urte osoko lanaren saria ezin jaso izana. Horrelako gauzak ditu futbolak".



JULEN BARRENA | ALOÑAKO KAPITAINA

"Zelai handia da Irunekoa eta gu ez gaude horrelako zelaietara ohituta. Ez daki-gu nola eskertu zaleei eman diguten babesa".



IKER OLALDE | ALOÑAKO JOKALARIA

"Zaletuen babesa eskertzeko modu egokiena igotera txartela izango litzateke baina beste batean izan beharko da".



ON ASTIGARRAGA | ENTRENATZAILEA

"Zaleen babesa erabatekoa izan da, 12. jokalaria izan da gaurkoan publikoa. Galtzen ere badakigula erakutsi dugu guztiok".



AITOR ORUETA | ENTRENATZAILEA

"Lehenengo golera arte partidua kontrolpean ikusi dut baina azkenean ezin izan da igoera ospatu. Lan ona egin dugu".

**ALOÑA MENDI TALDEA**

Joan den urtean Aitor Oruetak zortzigarren jardunaldian hartu zuen taldea, eta gogotik egin behar izan zuten lan taldea Preferentean mantentzeko.

Aurten, aurrealdean ibiliko zirela gutxik uste zutenean, denboraldiko ezustea eman dute. Partidu bakarra galdu dute etxean, eta hamalau jardunaldi egon dira galtzea

zer den jakin barik. Baina azkenean ezinezkoa izan da igoera lortzea. Zapatuan Real Unionen aurka galdua, irundarrak izan dira Preferenteko txapeldunak.

**AITOR ORUETA** | ALOÑA MENDIKO ENTRENATZAILEA

# "Ikustekoa izan da taldeak aste barruan zelan egin duen lan"

Xabier Urtzelai

**Azken jardunaldira arte lider egon eta gero azken partiduan igoerak eskuetatik ihes egiteak nolako sentsazioa uzten du?**

Nire ustez ez dugu ezer galdu. Badakit kanpotik ikusita bestelakoa eman dezakeela, baina ezin gara azken bi partiduetako emaitzekin bakarrik geratu.

Zerbait galdu ahal izateko irabazi egin behar da lehenago. Ni aurtengo denboraldian egin dugun lanarekin geratzen naiz. Egia da pena izan dela azken momentuan igoera ez lortzea, baina aurtengo denboraldiko laburpena ezin da hori izan. Uste dut hori baino meritu handiagoak egin ditugula.

**Denboraldiko azken txanpan nola ikusi duzu taldea?**

Azken partiduetan presio handia izan dugu, eta uste dut hori izan zela Idiazabalgo partiduen gakoa.

Jokalariek presio handia izan dute. Zerbait egiteko ilusioz zeuden eta azkenean ilusio hori antsietate bilakatu dela iruditu zait.

**Zaleen aldetik Irunen izan zenuen babesa izugarria izan da.**

Ez daukat hitzik zaleek eman diguten babesa nolakoa izan den esateko. Taldeak izan duen ilusioa herri guztira hedatu da eta zapatukoa izugarria izan zen.

Zaleei eskerrak ematea gutxi da. Polita izango zen txapelketa eskaintzea, baina ezin izan da. Zale guztien jarrera izugarria izan da, baina bereziki jokalarien neskalgunena. Denboraldi oso partidua guztietara etorri dira, berdin etxeko partiduetara zein kanpokoetara. Babes handia eman digute guztioi.

**Joan den urtetik hona taldean ez duzue aldaketa handirik egin, baina Aloiñak bestelako aurpegia erakutsi du.**

Neure ustez aurre-denboraldian egin genuen lana erabaki-

garria izan da. Jokalariak joan den urtetik ezagutzen nituen, eta Ismaelen eta bion artean erabaki genuen hasieran prestaketa ona eginda hobeto egingo genio-la urteari aurre. Lan fisiko handia egin genuen, eta Preferentea bezalako kategorian igarri egiten da hori.

**Arlo fisikoa alde batera utzita, zer egin du Aloiñak aurten ondo.**


Aurreko urteotan gol asko jaso izan ditugu, eta hori zuzentzea zen gure erronketako bat. Talde batek bi aukera izaten ditu: baloia eduki ala ez eduki. Baloia izanda ere komeni izaten da baloi hori galduz gero zelan defendatu jakitea, bestela, kontrarioak min handia egin dezake kontraerasoan. Eta, Aloiñak arazo hori izan du azken urteotan. Horretan ahalegindu naiz gehien, jokalariak erasoan daudenean ere pentsa dezatela baloia galduz gero zelan defendatu beharko luketen.

**Denboraldi hasieran inork ez zuen esango hain ondo ibiliko zinatenik.**

Bai, iaz asko sufritu genuelako. Denboraldia hasi genuenean nik banekien taldeak ez zuela iazkoa pasako, baina ez nuen uste horren ondo ibili

**"Ezin gara azken bi partiduetako laburpenarekin geratu denboraldia aztertzerakoan"**

**"Zaleek eman diguten babesa ezin dut hitzekin esan. Izugarria izan da bizitakoa"**



behar genuenik. Sailkapenaren erdialdean egongo ginela uste nuen, baina erdialdean egoteko taldeak gauzak ondo egiten badi-tu berehala egiten du gora. Arlo horretatik, ikustekoa da aste barruan taldeak zelan egin duen lan, jokalariek zelako jarrera izan duten. Kanpotik inork aste barruan egin dugun lana ikusi-

**"Aurre-denboraldian egin dugun lana erabakigarria izan dela uste dut"**

**"Herrian Hirugarren Mailari buruz berbetan hasi direnean jarri gara urduri"**

ko balu, ez litzateke Aloiñaren lehenengo postuarekin harrituta egongo.

**Egin iezaazu denboraldiaren laburpena.**

Lehenengo partidua uste genuen modukoak izan ziren, etxean ondo baina kanpoan ez horren ondo. Gero, baina, sei partidua irabazi genituen jarraian, eta taldeak konfiantza hartu zuen. Azaroan beherakada bat izan genuen, eta orduan galdu genuen Hernaniren kontra etxean. Oztupo hori igarota, baina, ia bigarren itzuli osoa egin dugu galdu barik. Hamalau partidutatik hamabi garaipen erdietsi genituen, eta bi berdinketa. Azken partiduetan, berriz, etxetik kanpora hainbat partidua galdu ditugu, baina kontrario gogorren kontra.

**Azken asteotan estuago ibili zarete, baina behera egin barik.**

Hamalau partidua igaro eta gero bagenekien lehenago edo geroago galdu egin behar genuela, eta Hondarribiaren zelaian

izan zen hori. Gero, Hernaniren eta Ordiziaren zelaian etorri ziren porrotak, baina ni etxeko taldeko partiduekin nengoen arduratuago, eta hor ez dugu kalerik egin. Akaso, herrian Hirugarren Mailaren gainean berbetan hasi direnean jarri gara urdurien. Zuzendaritza ere zortzi partiduren faltan hasi zen horretaz berbetan, eta azken lau partiduetarako bonu bereziak egiten. Akaso, urduri jarri gara horrekin guztiarekin.

**Taldeak 73 gol egin ditu, baina jokalaria askoren artean egin dituzte.**

Bai, eta neuretako gauza ona da hori, inork ez duelako behar baino protagonismo handiagora hartzen. Robertok egin ditu gol gehien, hamabost, eta Unai Arregi, Iñigo Arregi, Iker Aramendi eta Xabier Camino daude hamar golek. Horien artean egin dituzte gol gehienak, baina ezin ahaztu Henry Bazanen bost golak, Elgarrestaren hiru golak, Astolak egindako biak...

ALOÑA MENDI TALDEA

# "Ikustekoa da jokalariek urtean zehar zelan entrenatu diren"

**JONAN ELGARRESTA** | Atezaina  
"Atepean eginda-ko lanarekin segurtasuna eman dio taldeari, eta defentsaren lerroari erakutsi dio nork agintzen duen".



Unai Moia.

**IÑIGO IDIGORAS** | Atezaina  
"Denboraldian zehar erakutsi duen ilusioari eusten badio, berea da etorkizuna".

**SERGIO GIL** | Atezaina  
"Urte zaila izan da berarendako, ez duelako jokatzeko aukerarik izan. Dena dela, erakutsi duen jarrera profesionala eta taldeki-deekiko adiskidetasuna harri-garria izan da".

**IÑIGO ARREGI** | Aurrelaria  
"Aurtengo denboraldian izan dituen minutuek orain arte falta izan zaion konfiantza eman diote. Erakutsi du gola duen jokalaria dela".



Roberto Idigoras.

**IBAN ASTOLA** | Atzelaria  
"Futbolearen duen esperientzia lagungarria izan zaio taldean lidergo hartzeko. Denboraldi hasieran ez zeukan argi jarraitu ala ez. Eskerrak baietz esan zuen".

**JON IGARTUA** | Atzelaria  
"Diotenez, goiko mailara igo eta hurrengo urtea izaten da jokalariairendako zailena. Iazkoa urte gaitza izan zen berarendako, eta aurtun ohiko mailara itzuli da, futbol bikaina eginez".

**UNAI MOIUA** | Aurrelaria  
"Lesio batek bertan behera utzi zuen Unairen progresioa, eta urte bikaina izan behar zuela zirudie-nean ezerezean geratu zen. Orain dago, Oñatira iritsi zenetik, momentu onenean".

**ARATZ LOSADA** | Atzelaria  
"Lehenengo itzulian jokatuak partiduetan oso ondo ibili zen. Bigarren itzulian ez du horrenbeste parte hartu, defentsaren lerroak lan galanta egin duelako".

**JAGOBA MARTIN** | Atzelaria  
"Aurtengoa ez da bere urte onena izan, baina Aloñak



Henry Bazan.

moduan, urteak aurrera egin duen neurrian berak ere gora egin du. Aupa Jago!".

**AITOR LOPEZ** | Atzelaria  
"Duen esperientzia oso lagungarria izan da taldearen-dako. Kontrarioei debekatu egin die eskuin hegaletik aurrera egitea".

**IKER OLALDE** | Atzelaria  
"Baieztapearen urtea izan da. Horrela jarraitzen badu urte askotarako jokalaria du Aloñak".

**ROBERTO IDIGORAS** | Aurrelaria  
"Etxean egin dituen partidu onak ez ditu kanpoan islatu. Hala ere, egin duen gol kopurua ez da makala izan (15)".

**ARITZ GARMENDIA** | Erdilaria  
"Egin zuen aurre-denboraldi eder-rak minutuak eman zizkion Liga hasieran, min hartu eta lau hilabete gelditu egon den arte. Gaitza izan da berriro taldean sartzea, baina hasi da berriro ere jokatzeko".

**XABIER ELGARRESTA** | Erdilaria  
"Aurtengo fitxaketa bakarra izan da, eta berarengatik espero genuena jaso dugu, bikain erantzun du".

**XABIER CAMINO** | Aurrelaria  
"Nahiz eta partidu gutxi jokatu dituen, egin dituen golak erabakigarriak izan dira. Datu bat: berak jokatu duenean Aloñak ez du galdu".

**IKER ARAMENDI** | Aurrelaria  
"Lehen itzuliko errebelazioa izan zen gol ikusgarriak eginez. Bigarren itzulian, giharretako arazoak zirela-eta ez du jarraikortasunik izan".

**JON ASTIGARRAGA** | Aurrelaria  
"Lehenengo itzulian ez zuen asko jokatu. Bigarrean, berriz, erasoan estuasunak izan ditugunean taldeak eskertu egin du bere freskotetasuna".

**IÑIGO ZUBIA** | Erdilaria  
"Inork ez zuen Iñigoren alde apostu



Jon Ander Elgarresta.

egin gura, baina aurre-denboraldi ikusgarriarekin entrena-tzailearen konfiantza irabazi du, eta bikain erantzun du".

**MIKEL SANCHEZ** | Erdilaria  
"Duen lehiakortasunak minutuak eman dizkio. Leku askotan jokatzeko gauza da, eta emaitza onak eman ditu horrek".

**JULEN BARRENA** | Atzelaria  
"Kapitainak betiko erregulartasuna erakutsi du. Ez da ezertan nabarmentzen, dena egiten du-eta ondo".

**JOKIN GARAI** | Erdilaria  
"Lesioak zirela-eta kosta egin zitzaion txapelketan sartzea.

Gero erakutsi du, egin dituen kilometroekin, taldearen motorra dela".

**IKER MAIZTEGI** | Atzelaria  
"Lehen urtea du goiko taldean, eta ondo aprobetxatu ditu izan dituen minutuak. Gehiago jokatuta hartuko du esperientzia".

**HENRY BAZAN** | Erdilaria  
"Kosta egin zaio hemengo futbolera ohitzea, baina duen kalitateak erraztu egin dio lan hori".

**UNAI ARREGI** | Erdilaria  
"Bere garaian taldean lekuri ez izateak min egin zion, eta orain duen aukera bikain dabil aprobetxatzen".



Arantzazu Ezkibel | Kazetaria

## Ilusioa

**E**z dute denbora batean ahaztuko Aloñako jokalariek eta zaleek zapatuan Irunen bizitakoa. Ehunetik gora izan ginen Irunera hurbildu ginenak Real Union eta Aloñaren arteko partidua ikustera. Igoera ospatzea zen helburu nagusia, baina azkenean, bigarren postuarekin konformatu behar izan genuen.

Denboraldi hasieran inor gutxi egingo zuen apustu talde honen alde. Iaz egin zuten denboraldi kaxkarra ikusi eta gero zaila da sinistea aurtun lortu duten balentria. Baina arrakasta honen atzean lana besterik ez dago.

Aitor Oruetak iazko ia talde berberarekin ekin zion denboraldiari. Eta emaitzak ikusgarriak izan dira. Talde gaztea izan arren, urteak daramatzate elkarrekin jokatzen eta ezin hobeto egokitzen direla erakutsi dute.

Jokalariek talde nortasuna dutela azpimarratu dute behin eta berriz. Jokalari berriek ere bat egin dute taldearen nortasunarekin. Horren adibide da Xabier Elgarresta. Jokalari urretxuarrek joko antolatzaile bikaina dela erakutsi du. Baina talde honek ez du izen bakarra. Atzealdean, Iban Astola jaun eta jabe izan da, taldeari segurtasuna eta esperientzia emanez. Eta aurrealdean Roberto Idigorasek denboraldi hasieran begiak itxita sinatuko lukeen denboraldia egin du.

Zorionak, beraz, amestea posible egin diguzuenoi!

## Denboraldia zenbakitan

Denboraldiko lehenengo partidua gol festa-ekin hasi zuen Aloñak, etxean 6-3 nagusitu zitzaion Oriokori. Lehenengo bolada ona urrian izan zuten oñatiarrek: sei partidu jarraian irabazi zituzten. Horien artean, Iruni etxean irabazitakoa (5-0). Azaroaren 20an, berriz, Azkoagainen denboraldiko partidua bakarra galdu zuten, Hernaniren aurka (0-3).

Aloñari lidertza eman zion bolada urte hasieran etorri zen. Mutriku 2-1 galdu eta gero, Aloñak 13 jardunaldi egin zituen partidurik galdu gabe (11 garaipen eta bi berdinketa). Bolada ona Hondarribian eten zuen Aloñak martxoaren 25ean, 2-0 galduta. Azken txanpan kanpoko partiduetan kale egin dute eta ondorioz igoerak ihes egin die.

### EMAITZAK

Aloña Mendi-Orioko	6-4	Orioko-Aloña Mendi	3-6
Pasaia-Aloña Mendi	1-0	Aloña Mendi-Pasaia	4-3
Aloña Mendi-Touring	1-0	Touring-Aloña Mendi	0-0
UDA-Aloña Mendi	3-0	Aloña Mendi-UDA	1-0
Aloña Mendi-Zestoa	1-1	Zestoa-Aloña Mendi	0-0
Allerru-Aloña Mendi	0-3	Aloña Mendi-Allerru	5-1
Aloña Mendi-Mondra	1-0	Mondra-Aloña Mendi	0-1
Berio-Aloña Mendi	0-2	Aloña Mendi-Berio	2-0
Aloña Mendi-Irun	5-0	Irun 1902-Aloña Mendi	0-3
Anaitasuna-Aloña Mendi	1-2	Aloña Mendi-Anaitasuna	2-1
Aloña Mendi-Hondarribi	2-1	Hondarribi-Aloña Mendi	2-0
Trintxerpe-Aloña Mendi	2-1	Aloña Mendi-Trintxerpe	1-0
Aloña Mendi-Hernani	0-3	Hernani-Aloña Mendi	4-3
Zarautz-Aloña Mendi	2-2	Aloña Mendi-Zarautz	3-0
Aloña Mendi-Ordizia	3-2	Ordizia-Aloña Mendi	3-0
Mutriku-Aloña Mendi	2-1	Aloña Mendi-Mutriku	2-1
Aloña Mendi-Beti Gazte	3-0	Beti Gazte-Aloña Mendi	0-3
Idiazabal-Aloña Mendi	1-3	Aloña Mendi-Idiazabal	0-0
Aloña Mendi-Real Union	1-0	Real Union-Aloña Mendi	3-0

**PREFERENTE MAILA**



Gol aukerak izan arren, UDAk ez zuen golik egin zapatuan.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

## Bere atean gol gutxien jaso dituen taldea izan da UDA

**ORDIZIA**  
**0-0**  
**UDA**

Mireia Bikuña

Golik gabeko partidua jokatu zuten zapatuan Altamira futbol zelaian Ordiziak eta UDAk. Puntuak sailkapenean ez dio aldatarik ekarri Felix Reciorenen taldeari. Baina golik ezak helburua betetzeko aukera eman zien aretxabaletarrei. "Gure helburua gol gutxien jaso duen taldea izatea zen. Ordiziak golik egin ez

duenez, helburua bete dugu", azaldu digu UDAko entrenatzaile Felix Recio.

**GOL AUKERAK**

Golik ez egon arren, aukerak izan zituzten bi taldeek partidua irabazteko. Altamirako norgehiagokan Igor Arriagak ez zuen golik egin: "Denboraldi oso ona egin du Arriagak. Ordizaren aurka ez zuen golik lortu, baina preferente mailako *pitxitxia* da. 25 gol egin ditu".

Bigarren itzulian UDAko defentsak egindako lanari esker eta, noski, Arriagak sartutako golekin denboraldi borobila egin dutela aitortu digu Recio: "Hasi-rako helburua maila mantentzea zen. Baina batez ere bigarren itzu-

liko emaitzei esker, sailkapenean gora egin dugu. Azkenera arte egon gara 3. mailara igotzeko lehian. Azken sailkatuen aurka-partiduetako emaitzen erruz Aloña Mendi eta Real Union baino atzerago geratu ginen".

Aloña Mendi, Real Union eta UDArekin batera, Pasaiaren lana azpimarratu zigun Felix Recio. "Liga txapelketan erregulartasunak saria izaten du. Hala, sailkapenak lehen hiru taldeak indartsuenak direla erakusten du. Baina niri Pasaia ere asko gustatu zait".

Balorazioak egin ondoren atsedeen hartzeko unea dator: "Jokalariek oporretan daude. Gu dagoeneko denboraldi berriari begira jarri gara", aitortu zigun Recio.

## Mondrak galdu egin zuen ligako azken partidua

**TRINTXERPE**  
**3-1**  
**MONDRA**

Mireia Bikuña

Jokoan ezer gutxi zuten bi taldeen arteko norgehiagoka jokatu zuten zapatuan Trintxerpek eta Mondrak. Ez zuten puntu beharrik eta partidu irekia jokatu zuten. Baina Trintxerpek trebetasun handiagoa erakutsi zuen Mondrako

atearen aurrean. Hiru gol egin eta garaipena eskuratu zuen.

**GOLA, ATSEDENAREN AURRETIK**

Lehenengo zatia parekatua izan zen. Bi taldeek gol aukera garbiak sortu zituzten, baina ez zuten asmatu.

Atsedenera gol barik iritsiko zirela uste zutenean, Trintxerpek lehena egin zuen, atsedenean abantaila emango ziona. Saenzek 44. minutuan lortu zuen. Hark lasaitasuna eman zion etxeko taldeari eta bigarren zatian ondo menderatu zuen norgehiagoka. Gilek 55. minutuan Trintxerperen

bigarren gola egin eta gero. Muruak Mondrarentzako lehen egin zuen 75. minutuan. Baina Gordobilen taldeak ez zuen partidua berdindu. Trintxerpek hirugarrena egin zuen 85. minutuan. Gartzia izan zen golegilea.

**EPAILEAREN LANA**

Ez zuen zailtasunik izan Medina jaunak Trintxerpe eta Mondraren arteko partidua zuzentzeko. Eta azken emaitzan eraginik izan ez bazuen ere, une batzuetan jarra-lotsagarria erakutsi zuen. Mondrako eserlekuan zeuden bi jokalariek partidutik egotzi zituen epaileak.

**Labur**

### Mondrako nesken taldea igoera lortzeko atarian geratu da

Igoera txapelketa ona egin dute Mondrako neskek, baina haiek ere igoeraren atarian geratu dira. Bigarren postuarekin konformatu behar izan dute, Amara Berriren aurka berdinketa lortu eta gero.

Norgehiagoka ondo hasi zen ibarreko neskenentzat. Jokaldi nahasi baten ondoren Maite Roak gola egin zuen, eta Mondra aurreratu. Luzapeneko minutuetan, baina, berdindu zuten donostiarrek.

**Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila**

SAILKAPENA							
	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Real Union	78	38	24	8	6	77	36
2. Aloña Mendi	77	38	24	9	5	73	44
3. UDA	72	38	21	8	9	64	33
4. Ordizia	63	38	20	15	3	67	53
5. Zarautz	63	38	18	11	9	71	46
6. Trintxerpe	60	38	18	14	6	67	54
7. Touring	58	38	16	12	10	56	53
8. Pasaia	54	38	13	10	15	60	53
9. Hondarribi	53	38	14	13	11	45	56
10. Mondra	53	38	15	15	8	58	47
11. Hernani	53	38	15	15	8	53	57
12. Mutriku	52	38	15	16	7	48	49
13. Berio	50	38	13	14	11	57	51
14. Idiazabal	46	38	12	16	10	43	56
15. Zestoa	46	38	12	16	10	47	59
16. Anaitasuna	46	38	13	18	7	52	54
17. Irun 1902	43	38	11	17	10	48	64
18. Orioko	32	38	7	20	11	45	89
19. Beti Gazte	30	38	6	20	12	42	66
20. Allerru	22	38	4	24	10	33	86

EMAITZAK			
Anaitasuna-Irun 1902	0-0	Ordizia-UDA	0-0
Hondarribi-Berio	0-0	Mutriku-Touring	1-1
Trintxerpe-Mondra	3-1	Beti Gazte-Pasaia	0-0
Hernani-Allerru	5-0	Idiazabal-Orioko	3-0
Zarautz-Zestoa	1-2	Real Union-Aloña Mendi	3-0

### Bergarak 1. erregional mailan jarraituko du

**EUSKALDUNA**  
**1-0**  
**BERGARA**

Arantzazu Ezkibel

Bergarak ez zuen Euskaldunaren aurkako kanporaketa gainditu eta preferente mailara igotzeko posturik gabe geratu da. Joaneko partiduan 1-1 egin zuten Ago-

rrosinen eta zapatuan, Andoainen 1-0 irabazi zuen Euskaldunak. Hala, beste urtebetez 1. erregional mailan jokatu beharko du Bergarak.

**PARTIDU TXARRA**

Andoainen zapatuan jokaturako partidua nahiko txarra izan zen. Etxeko taldeak ez zuen mahoneroek baino meritu handiagoa egin, baina izandako aukera bakarra ondo aprobetxatu zuen. Bergarak ere izan zuen gola egiteko aukera, baina Josu Zubiaren mutilek huts egin zuten gola egiterakoan.



Preferente mailara igotzea zen mahoneroen helburua aurtan.

ARTXIBOA



ZEGAMA-AIZKORRI MARATOIA

MUNDUKO KOPAKO 2. PROBA | 416 KORRIKALARIK HARTU ZUTEN IRTEERA ZEGAMAN

# Ricardo Mejia mexikarra nagusi Zegamako helmugan

*Korrikalari mexikarra Munduko Kopako liderra da lehen bi lasterketak irabazi eta gero: Mexikon lehena eta Zegaman bigarrena*

Mireia Bikuña

Goizeko 9etan irteera hartu eta helmugara iritsi arte, Ricardo Mejiak ez zuen lasterketa burua utzi. Otzaurten korrikalari mexikarrarekin batera, Ionut Zinca (Aloñako igoeraren irabazlea) eta Pellissier ziren onenak. Zinca berehala atzean geratu zen eta kilometro askotan lasterketa buru izango zen taldea osatu zen: Mejia, Roc eta Pellissier.

Atabarrieta, Aratz, Portugal, Santi Spiritu ea Aizkorriko tarteko helmugetan ordena horretan pasa ziren. Aizkorriko Ricardo Mejiak 4 minutuko aldea zuen Roc eta Pellissierrekin. Aitxurin abantaila ia 5 minutukoa zen.

Hiruko talde haren atzetik korrikalari italiarrak eta Rob Jebb iazko irabazlea zihoazen. Urbiara iritsi aurretik, Agusti Rocek lasterketa utzi beharra izan zuen. Hala, buruko taldean



Ricardo Mejiak Getariako txakolin botilarekin ospatu zuen garaipena.

Mejia eta Pellissier bakarrik geratu ziren. 29. kilometroan, Urbian, Rob Jebb iazko irabazlea sartu zen aurreko taldean. Eta

ondorioz lasterketa asko animatu zen. Mejia mexikarrak 6 minutuko abantaila zuen Aizkorriko, baina jaitsieran aban-

taila guztia galdu zuen. Mejia helmugara 4 segundo lehenago bakarrik iritsi zen (4:03:41). Bigarren Rob Jebb sailkatu zen (4:03:45).

**416 korrikalarik hasi zuten lasterketa; helmugara 330 iritsi ziren**

**Ikusle asko egon zen lasterketako ibilbidean korrikalariak animatzen**

**EMAKUMEEN ERREKORRA HOBETU ZEN**

Angela Mutge eskoziarra izan zen emakumerik azkarrena. Errekorra 20 minutuan hobetu zuen (4:43:04).

Korrikalari euskaldunen artean Imanol Etxeberria eta Nerea Amilibia izan ziren azkarrenak.

**Emaitzak**

**LEHENENGO GIZONEZKOAK**

1. Ricardo Mejia (4:03:41)
2. Rob Jebb (4:03:45)
3. Fabio Bonfanti (4:04:36)
4. Fulvio Dapit (4:05:15)
5. Marco Rusconi (4:06:54)
6. Jean Pellissier (4:12:14)
7. Nick Sharp (4:14:05)
8. Simon Booth (4:18:35)
9. Flavio Tomalleri (4:20:09)
10. Eduard Barcelo (4:23:12)
11. Imanol Etxeberria (4:24:58)

**LEHENENGO EMAKUMEZKOAK**

1. Angela Mutge (4:43:04)
2. Corinne Favre (4:52:20)
3. Esther Hernandez (4:55:02)
4. Daniela Vassalli (5:03:00)
5. Nerea Amilibia (5:11:35)
6. Sharon Taylor (5:27:12)
7. Nerea Amilibia (5:19:40)
8. Helena Perez (5:27:51)
9. Jaione Sasieta (5:28:16)
10. Daniela Gilardi (5:28:44)
11. Alicia Olazabal (5:39:19)

**DEBAGOIENDARRAK**

27. Aritz Kortabarria (4:40:26)
102. Asier Elkorobarrutia (5:26:54)
112. Iñigo Altuna (5:28:47)
122. Joxean Larrea (5:31:36)
150. Josu Odriozola (5:44:13)
165. Josu Gascon (5:49:16)
201. Bittor Guridi (6:04:44)
203. Gurutze Altuna (6:06:51)
210. Jesus Manuel Botello (6:12:35)
215. Jabi Osa (6:16:43)
223. Asier Eraña (6:20:05)
237. Urtzi Berasaluze (6:27:05)
525. Pablo Arejolaleiba (6:33:29)
308. Alex Martiarena (7:26:15)
313. Mikel Sologaitoa (7:42:32)

**IRABAZLEAK ETA PARTE-HARTZAILEAK**



RICARDO MEJIA | MEXIKO

**"Errekorra hobetzeko asmoz etorri naiz, baina bero larregi egin du eta ez dut aukerarik izan"**

Pozik zegoen amaieran Ricardo Mejia: "Orain arteko bi probak irabazi ditut eta horrek aukera ematen dit Munduko Kopako lider izaten jarraitzeko. Hala ere, jaitsiera oso luzea egin zait. Askoz hobeto moldatzen naiz aldapan gora. Korrikalari ingelesa oso indartsu ikusi dut azken kilometroetan", esan zuen irabazleak.



ANGELA MUTGE | ESKOZIA

**"Eskalatzaile ona naiz eta ibilbidea gogortu denean aurkariak atzean uzteko aprobeztatu dut"**

Atzoko izen propioetako bat izan zen Eskozian jaiotako emakume hau. Emakumeen lasterketako errekorra 20 minutuan ondu zuen. "Ez naiz errekorra hobetzeko helburuarekin etorri, baina aldapa gora ondo moldatzen naiz eta fisikoki indartsu nengoenez denbora ona egin ahal izan dut", adierazi zigun korrikalari eskoziarrak.



IMANOL ETXEBERRIA | BEASAIN

**"Lehen aldia da lasterketa hau egiten dudala eta ez nuen espero sailkapenean 11. postuan amaitzea"**

Ezustean hartu zuen Imanol Etxeberriak atzo egindako lana. "Orain artea bi probatan parte hartu dut, Beran eta Aloñako Igoeran. Lehen aldia da Zegaman parte hartzen dudala eta alde horretatik sorpresa izan da lehen euskalduna izatea. Bestelakoan, asko gustatu zait ibilbidea", azaldu zigun Imanolek.



GURUTZE ALTUNA | OÑATI

**"Belaunean min hartuta hasi dut lasterketa. Hala ere, nire helburua bete dut: helmugara iristea"**

Aurten lehen aldiz egin du korrikalari oñatiarrak Zegama-Aizkorri mendi maratonia. Eta bere helburua bete du: "Nire asmoa lasterketa amaitzea zen eta gustura nago. Baina belaunarekin arazoak izan ditut. Minduta neukan hasieran eta ikusle batek utzitako belaunetako batekin amaitu dut proba", esan zigun Gurutzek.

• GAZTEAK, KOPAKO FINALA

# Ez zuten kopa etxera ekarri

*Hiruko txapelketa bidez jokatu zuten kopa finala Zarautz, Arrate eta Arrasateko Gatz Museoa Jakionek*

**GATZ MUSEOA JAKION**  
**13-23**  
**ARRATE**

**Gatz Museoa Jakion** | Salterai, Zarrao (2), Gallardo, Arizmendi, Azpilikueta, Hernandez (2), Aginagalde, Rodriguez (5), Herrero (2) eta Bodallo (2).

**Arrate** | Josu P., Ander G. (2), Rubie (2), San Martin (1), Teruelo, Aitor I. (1), Larrañaga, Jon U. (3), Ugarteburu (2), Pinedo (2), Badiola (1), Ittucastillo (3), Perez (2).

**Golak:** partidu amaieran 13-23.

Arantzazu Ezkibel

Arrasateko Gatz Museoa Jakionek hirugarren postuan amaitu zuen kopako finala. Mutrikun jokatu ziren finaleko hiru partiduak Arrate, Zarautz eta Arrasatearren artean.

## BI PARTIDUAK GALDU ZITUZTEN

Arrasatek 13-23 galdu zuen lehenengo partidua Arrateren aurka. Lehenengo 15 minutuetan nahiko berdindua izan zen norgehiagoka. Baina Arrate talde handia da eta zapatuan maila ezin hobea eman zuten eibartarrek. Markagailuan aurre hartu eta 10 goleko tarte egin zieten arrasatearrei.



GATZ MUSEOA JAKION TALDEA

Jokalari guztiek izan zuten finalaz gozatzeko aukera.

Bigarren partidua berdindua izan zen, epaileen erabakiek oreka apurtu zuten arte. Azkenean Zarautzek markagailuan aurre hartu zuen eta 18-15 nagusitu ziren Arrasateko Gatz Museoa Jakion taldearen aurka. Hala, bi partiduak galduta, azken postuan

amaitu zuten hiruko finala arrasatearrek.

“Finalaz gozatzera joan gara Mutrikura”, adierazi zigun Arrasateko entrenatzaile Agustinek. Jokalari guztiek izan zuten finala jokatzeko aukera eta denek denbora tarte bera izan zuten.

• KADETEAK, NESKAK

# Aloñak 19-17 irabazi zuen azken partidua

Arantzazu Ezkibel

Aloña Mendiko kadete mailako neskek 19-17 irabazi zioten zapatuan Mutrikuri.

Norgehiagoka berdindua izan zen. Bi taldeak gogotsu kantxaratu ziren, garaipena eskuratu nahian, eta Aloñak egin zituen partidua irabazteko merezimendu handiagoak.

## SAILKAPENEAN BIGARREN

Aloñak bigarren postuan amaitu du kopa txapelketa. Jokaturako zazpi partiduetaetik sei irabazi dituzte oñatiarrek eta bakararra galdu.

## Emaitzak

### MAILAZ MAILA

**EUSKADIKO IGOERA TXAP.**  
La Salle-Ford Mugarrri Arrasate 31-31

**GAZTE MUTILAK. KOPA TXAP.**  
Gatz Museoa Jakion-Arrate 13-23  
Gatz Museoa Jakion-Aldaketa 16 15-18

**KADETE MUTILAK. KOPA TXAP.**  
Verkol Aloña-Jauja Andonegi 19-17

• LEHENENGO TERRITORIALA, IGOERA FASEA

# Berdinketarekin amaitu du igoera fasea Ford Mugarrrik

**LA SALLE**  
**31-31**  
**FORD MUGARRI**

Mireia Bikuña

Euskadiko Txapelketarako txartela eskuetan, partidu lasaia jokatu zuen Ford Mugarrrik La Salleren aurka. Tramite hutseko partidua izan zen.

## HASIERA PAREKATUA

Partiduko lehen minutuak berdintasun handikoak izan ziren. Ford Mugarrrik defentsa erlaxatua egin zuen eta erasoan hutsuak aprobetxatuz markagailua bere alde jarri zuen 15. minuturako. Lehen zati horretan Ford Mugarrriko jokalariek guztiek jokatu zuten. Atsedenean, arrasatearrak ziren nagusi 13-16.

Bigarren zatian jarrera berekin irten ziren Arandoren jokalariek kantxara. Erasoko errit-



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Jokalari guztiendako minutuak egon ziren zapatuko partiduan.

moarekin jarraitu zuten bi taldeek eta gol asko lortu zituzten: 45. minutuan 19-21 erakusten zuen markagailuak.

Azken ordu laurdenean Ford Mugarrrik baloi batzuk galdu zituen eta etxeko taldea gol bakar batera jarri zen, 26-27. Abantaila hura mantentzen saiatu ziren

arrasatearrak. Baina 14 segundo falta zirela, penalti eztabaidagarri baten ondoren La Sallek berdinketa lortu zuen. Bada, sake azkar baten ondotik jaurtiketa egiteko aukera izan zuen Arandoren taldeak, baina baloiak zutoinean eman zuen. Amaieran, beraz, berdinketa nagusi.

ANDONI ARANDO | ENTRENATZAILEA

# “Euskadiko Txapelketan jokatzeko maila dugu”

## Nolako balorazioa egiten duzu?


Emaitzei dagokienez oso positiboa izan da. Denboraldi honetan 30 partidu jokatu ditugu eta hiru besterik ez dugu galdu. Gainera, azken lau urteotako helburua lortu dugu: Euskadiko Txapelketarako sailkapena.

## Helburua beteta, gustura al zaude?

Bai. Eskubaloi taldeko guztiok eta batzordea osatzen dugunok oso pozik gaude. Askok kostatu zaigu, baina azkenean posible izango da Arrasateko talde bat Euskadiko Txapelketan ikustea.

## Zein dira denboraldiko gauzarik onena eta txarrena?

Onena, duda barik, helburua lortu izana. Txarrena, berriz, galdu ditugun hiru partiduen ondotik taldean sortutako giro nahasia. Zaila izan zen partidu haietako giroari buelta ematea. Horrezaz gain, lehen entrenatzaile eta eskubaloiko koordinatzaile izandako Jesus Mari Herrerori egindako promesa betetzea lortu dugu eta horrek asko poztzen gaitu.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

## Euskadiko Txapelketan zer maila egongo da?

Territorial kategorian baino maila altuagoa. Fisikoki taldeak hobeto prestatzen dira eta abiadura handiagoz jokatzen dute. Hala ere, gure taldeak maila mantentzeko jokalariek dituela uste dut.

## Taldean aldaketa asko egongo al dira?

Momentuz ez dugu hitz egin. Baina seguruenik jokalariek gehienek jarraituko dute, eta, hala bada, maila mantentzeko helburuarekin jokatuko dugu.

• GIPUZKOAKO TXAPELKETA, JUNIOR MAILAKO MUTILAK

# Hirugarren laurdenean galdu zuten

*Txapeldunen faseko bost partiduak galdu ditu Mugarri Alkesako junior taldeak; hala ere, denboraldi bikaina egin dute arrasatearrek*

MUGARRI ALKESA  
**43-53**  
AT. SAN SEBASTIAN

**Mugarri Alkesa** | Aitor (15), Imanol (14), Xabier (4), Markel (2), Ander (6), Atxa (2), Mikel eta Sergio.

**At. San Sebastian** | Lasa (23), Oliveira (3), Carballo (3), Da Silva (4), salbidea 813) eta Bernaldez (6).

**Golak:** Lehenengo laurdena 12-12. Bigarren laurdena 24-22. Hirugarren laurdena 28-36. Laugarren laurdena 43-53.

Mireia Bikuña

Denboraldia agurtzeko beste porrot bat jaso zuen Mugarri Alkesako junior mailako taldeak atzo. Atsedenean markagailuan aurretik egon arren, hirugarren laurdenean galdu zuten partidua. Laurden hartan lau puntu bakarrik egin zituen Jose Mari Baltzategiren taldeak.

## BARRUKO JOKOAN DONOSTIARRAK HOBETO

Mugarri Alkesak baja garrantzitsuak zituen atzoko partidurako; jokalaririk gutxi, min hartuta, ez zuten norgehiagoka jokatu. Baina arrasatearrek norgehiagoka kontrolpean izan zuten lehen bi laurdenetan.

Lehenengo laurdenean berdintasuna erakusten zuen markagailuak: 12-12. Bigarren laurdenean ere berdinketa izan zen nagusi: 24-22. Eta atsedenean Baltzategiren mutilak bi puntuz aurretik ziren markagailuan.

Baina ordu arte eginiko lan ona pikutara bidali zuen Mugarri Alkesak hirugarren laurdenean. Laurden hartan At. San Sebastian taldeak barruko jokoa, errebotean, lan hobea egin zuen Mugarri Alkesak baino. Etxeko taldeak, gainera, baloi asko galdu zituen; horrek kalte handia egin zion taldeari. Hala, hirugarren laurdenean lau puntu besterik ez zuten lortu. Laugarren laurdena hasi aurretik, At. San Sebastianek markagailuko aldea zortzi puntura zabaldu zuen: 28-36.



JOSETXO ARANTZABAL

Barruko jokoa hobeto jokatu zuten donostiarrek.

## ENTRENATZAILEAK ALDAKETAK EGIN ZITUEN

Egoera haren aurrean donostiarrak jokoa apurtu nahian, Mugarri Alkesako entrenatzaileak aldaketa ezberdinak egin zituen defentsan. Baina aldaketak haiek ez zioten emaitzarik eman.

Mugarri Alkesaren jokoa intentsitateak behera egin zuen eta azken laurdenean 15 puntu saskiratu arren garaipenak ihes

egin zien. Hamar puntuko aldearekin irabazi zuten donostiarrak.

## LIGA AMAITU DUTE

Horrenbestez, txapeldunen fasea amaitu dute arrasatearrek. Jokutako bost partiduak galdu arren, denboraldi bikaina egin du junior mailako taldeak. Hurrengo denboraldian ere 1. go mailan jokatuko du Arrasateko taldeak.

• KADETEAK, MUTILAK

## Defentsako lanak eman zien garaipena arrasatearrei

MUGARRI ALKESA  
**65-58**  
INTXAURRONDO

Mireia Bikuña

Mugarri Alkesako kadete taldeak atzoko partiduko azken bi laurdenetan defentsan egindako lanari esker irabazi zuen. Arrasatearren entrenatzaileak zonakako defentsa erabili zuen bi tarte haietan, bi helburu nagusirekin: barruko jokoa eta errebotea hobetzea.

Partidua azken minutuetan Mugarri Alkesak lortutako hiru puntuko bi saskiratzerekin erabaki zen.

• KADETEAK

## Aloñak garaipenarekin amaitu du denboraldia

ALOÑA MENDI  
**56-52**  
EASO C

Arantzazu Ezkibel

Aloña Mendiko kadeteek ezin hobeto amaitu dute liga. Denboraldiko azken partiduan 56-52 nagusitu ziren Xabi Igartuaren mutilak Donostiako Easo C-ren aurka. Partidu polita jokatu zuten bi taldeek. Ondo kokatuta atera ziren Zubikoako kantxara eta huts gutxi egin zituzten jokoa.

Oñatiarrek hirugarren postuan amaitu dute liga.

• GAZTEAK

# Eskoriatzak etxean galdu zuen

ESKORIATZA  
**39-54**  
SAN IGNACIO

**Eskoriatza** | Balzategi, Aranzabal, Akisu, Calderon, Ezpeleta, Azagirre, Eriz, Salaberri eta Garai.

**San Ignacio** | Oñate, Iñurrategi, Sanz, Campanero, Zabaleta, Solís, Juanigarena eta Landa.

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena 8-18. Bigarren laurdena 12-34. Hirugarren laurdena 26-42. Laugarren laurdena 939-54.

Arantzazu Ezkibel

Eskoriatzak denboraldiko azken partidua galdu zuen etxean San Ignacioren aurka. Aurten denboraldi txarra egin dute eskoriatzarrek. Jokatutako bost partiduetatik bostak galdu dituzte.

## PARTIDUA TXARRA

Zapatuan Intxaurtxueta kiroldegian jokatutakoa partidu txarra izan zen.

Lehenengo zatian gaizki aritu ziren etxeko neskek. Erasoan ideia argirik gabe aritu ziren eta atzealdean gaizki defendatu zuten. Hala, kontraerasoak egiteko auke



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Oñatiko taldeak errebotean erraztasun handiak eman zizkion Lasarteri.

rak izan zituzten aurkariek. Bigarren zatian, defentsa gogortu egin zuten eta jokoa nabari eragin zuten horrek. Taula azpian auke

ra gutxiago eman zioten aurkariei eta eskoriatzarrek 27 puntu lortu zituzten. Azkenean 39-54ko emaitzarekin galdu zuten.

## Emaitzak

### MAILAZ MAILA

#### GAZTE MUTILAK

Mugarri Alkesa-Atco. Sn.Sn. 43-53

#### GAZTE NESKAK

Internacional-Aloña Mendi 32-35  
Eskoriatza-San Ignacio 39-54

#### KADETE MUTILAK

Mugarri Alkesa-Intxaurren 65-58  
Aloña Mendi-Easo 56-52

## Txirrindularitza

• XV. EUSKAL BIZIKLETA

# Euskal Bizikletako tropela egubakoitzean iritsiko da gurera

*Maiatzaren 31n hasiko da lasterketa eta Ekainaren 2an Gatzagan amaituko da itzuliko hirugarren etapa*

Arantzazu Ezkibel

Gatzagak hartuko du egubakoitzean Euskal Bizikletako hirugarren etaparen amaiera. Txirrindulari tropelak ibarrean bi egun emango ditu. Ekainaren 2an iritsiko dira Gatzagara eta Ekainaren 3ko irteera ere bertan egingo du tropelak.

Aurtengoa XV. Euskal Bizikleta izango da. Maiatzaren 31n emango zaio itzuliari hasiera Eibarren. Lehenengo etapa Eibar eta Astigarraga artean izango da. Bigarrena Astigarragan hasi eta Ispasterren amaituko da eta hirugarrena gurera iritsiko da, Gatzagara. Laugarren etapa Gatzagan hasi eta Agurainen amaituko da eta azken etapa Agurain eta Arrate artekoa izango da. Ohiko den bezala, Arrateko igorerarekin amaituko da aurtengo Euskal Bizikleta itzulia, ekainaren 4an.



ARTXIBOA

Gatzagak Euskal Bizikletako etapa amaiera bat eta hurrengo eguneko hasiera izango ditu aurtengo edizioan.

**TALDE PROFESIONALAK**

Uci Pro Tour ligako lau talde arituko dira aurtengo Euskal Bizikletan. Antolatzaileek dagoeneko eman dituzte itzulian parte hartuko duten taldeen izenak.

Uci Pro Tour ligako taldeak ondoak dira: Caisse d'Epargne-Illes Balears, Liberty Seguros-Wurth, Saunier Duval-Prodir eta Euskaltel-Euskadi. Itzuliari hasiera beste 12 taldek ere emango dio-

te: 3 Molinos Resort, Andalucia-Paul Versan, Comunitat Valenciana, Kaiku, Relax-GAM, Orbea eta Spiuk Extremadura. Azken bi horiek ez dira talde profesionalak.

Atzerritik etorriko diren taldeak 3C Casalinghi Jet Androni Giocattoli eta Acqua & Sapone (Italia), Agritubel (Frantzia), Team LPR (Suitza) eta Barloworld (Britainia Handia) dira.


## • HERRI ARTEKO PILOTA TXAPELKETA

**FINAL-LAURDENAK IZAN DITUZTE BERGARAK ETA ARRASATEK**

Bergara eta Arrasatek datorren astera arte itxaron beharko dute herri arteko txapelketan aurrea egiten duten edo ez jakiteko.

Oraingoz, gauzak hankaz gora jarri zaizkio Bergarari. Egubakoitzean 2-1 galdu zuen Bergarako pilota taldeak Azpeitiarren aurka. Kadete taldeak 22-15 galdu zuen eta gazteek 22-14. Partida irabazi zuten bakarrak nagusiak izan ziren (22-6).

Arrasateko taldean, kanporaketak beste itxura bat du. 2-1 nagusitu ziren etxekoak Andainen aurka. Kadete mailan Ibai Bolinaga eta Ander Zubizarretak 22-9 irabazi zuten. Gazteen taldeak 9-22 galdu zuen eta Egoitz Uribarren eta Unai Aspe bikote nagusiak 22-11 irabazi zuen. Ikusle asko hurbildu ziren Uarkapera pilota jaialdia ikustera.



JOSETXO ARANTZABAL

## • HERRIKO FUTBOL TXAPELKETA, OÑATI



MIREIA BIKUÑA

**TXARRIXAK, TXAPELDUNA**

Zapatuan jokatu ziren Azkoagain futbol zelaian Oñatiko futbol txapelketako azken partidua. Final nagusian Txarrixak gailendu zitzaion Gaur Bai taldeari 2-1. Aurretik kontsolazio finala jokatu zuten Xaguxar eta Zorro Berok. Xaguxarrek amaitu zuen liga 3. tokian, 3-1 irabazi ondok. Azkenik, Ankarateko izan zen kopa txapelduna. Ankarateko kopako finala Garratzenak taldearen aurka jokatu zuen eta 2-1 irabazi zuen. 22 taldek parte hartu dute aurtengo herriko futbol txapelketako denboraldian.

Elena Lanuzak entrenatzen duen gimnasia erritmikoko taldeak Euskadiko Txapelketa eskuratu zuen iragan asteburuan Tolosan. Elena arrasatearra da eta orain Gasteizen

bizi den arren, astean hiru bider etortzen da Arrasatera Dragoi taldeko neskek entrenatzera. Bederatzi urte zituenetik dabil Elena Arrasateko gimnasia erritmiko

taldean, lehenengo gimnasta bezala eta orain entrenatzaile lanetan. Bere garaian txapelketak irabazitakoa da Elena; hala ere, entrenatzaile lana nahigo duela esan digu.

ELENA LANUZA | DRAGOI GIMNASIA TALDEKO ENTRENATZAILEA

# "Gimnasia egin nahi duen edonor ongietorria da gure taldera"

Arantzazu Ezkibel

**Denboraldia amaitzeko modu ezin hobea izan da Tolosan eskuratu-tako txapelketa.**

Egia esan, sorpresa handia izan da kadete mailako neskek Euskadiko Txapelketan eta alebnek Gipuzkoakoan lortu duten postua. Nik ez nuen uste txapelketa irabazteko gai izango ginenik. **Euskadiko gimnasia erritmikoa maila ona al du?**

Bizkaiko eta Gipuzkoako klubak izan dira Tolosako txapelketan aritu direnak eta oso maila ona duten taldeak dira.

**Gimnasta batek zenbat urterekin hasi behar du entrenatzen maila polita lortzeko?**

Pertsona bakoitzaren ezaugarrien arabera da hori. Neska batzuk 5 urterekin hasten dira eta beste batzuk, berriz, 9 urterekin. Maila polita lortzeko, garrantzitsuagoa da gimnastaren ezaugarriak dituen urteak baino.

**Zenbat urterekin ematen du neska batek gimnasta bezala duen hoberena?**

Infantil eta kadete mailetan ari direnean, hain zuzen ere. Behin 14 urte beteta dituztenean izaten dute gimnasta bezala momentu onena neskek.

**Profesionaltara iristen ez den neska batek zenbat urte arte iraun dezake gimnasia erritmikoa?**

Gurekin aritzen diren neskek, normalean, 18 urte betetzen dituztenean utzi egiten dute gimnasia erritmikoa. Baina ez da ezin dutelako txapelketetan jarraitu. Ikasketak direla-eta kanpora joan ohi dira, horregatik uzten dute kluba.

**Gimnasta batek gorpuzkera jakina izan behar du edo landu egiten den zerbait da?**

Gu eskola mailan aritzen gara eta adin hauetan edonork har dezake parte. Guztioi zuzendutako kirola da gimnasia erritmikoa eta ez da gorpuzkera jakinik behar kirol hau egiteko. Izena ematen duen edonor ongietorria da gure taldera.

Helburu nagusia neska-mutilek kirola egitea da. Adin hauetan zaletasuna hartu eta gerora gimnasia erritmikoa alde batera utzi arren, kirola egiten jarrai dezatela.

Beste maila batean, Espainiako selekzioan eta talde profesionalean, adibidez, gimnastaren gorpuzkerak badu bere garrantzia. Baina hori beste mundu bat da.

**Neska batek zer izan behar du berezkoa gimnasta ona izateko?**

Garrantzi handiena duten ezaugarriak muskuluen tonua, malgutasuna eta koordinazioa dira. Hiru ezaugarri horiei begiratzen diegu neska bat zer-nolako gimnasta izango den jakiteko. **Zergatik uste duzu aritzen direla hain mutil gutxi gimnasia erritmikoa?**

Nik uste dut betiko topikoen eraginagatik izango dela. Gainera, telebistan ere ez da batere ikusten mutilen gimnasia erritmikoa eta horrek ere izango du zerikusia.

Euskal Herri mailan kirol honetan aritzen diren hiru mutil besterik ez dago. Eta Espainia mailan ere bat edo beste badago, baina ez askorik.

Orain urte batzuk izan genuen mutil bat, baina urtebete besterik ez zigun iraun. Uste dut mutilekin lan egiteko modua berbera izango dela. Azken finean, exijentzia teknikoak berberak dira, baita araudia ere.

**Arrasateko neskek ze modalitatean aritzen dira ondoen?**

Ze modalitatean aritu Federazioak esaten digu. Adinaren arabera Federazioak modalitate bat egokitzen digu eta guk ez daukagu aukeratzeko modurik.

Euskadiko Txapelketa irabazi duen nesken taldea uztai eta mazo modalitatean ibili da. Beraz, modalitate horretan aritzen garela ondoen esan dezakegu!

**Zein da, zure ustez, modalitate ikusgarriena, zuri gehien gustatzen zaizuna?**

Nire ustez, soka da guztietan politena. Ariketak egiteko garaian joko handien ematen duen modalitatea da soka. Uztai ere oso polita da. Hauekin lana egiterakoan baliabide gehiago



JOSETXO ARANTZABAL

Elena Lanuzak 18 urte daramatza Arrasateko gimnasia erritmiko taldean.

erabil ditzakezu. Sormen handiagoa eskatzen dute; beraz, ikusgarriagoak dira.

**Nola zaintzen dira neskek?**

Egia esan, gure mailan, neskek ez dira askorik zaintzen. Elikadura aldetik ez dute inongo kontrolik, hau da, etxean gurasoek ematen dietena jaten dute, inongo murrizketarik egin gabe.

Entrenamenduei dagokienez, astean hiru aldiz egiten ditugu

entrenamenduak; egunero bi ordu inguru. Gure entrenamenduen eta maila profesionalean dabiltzanen arteko entrenamenduen arteko aldea handia da. Beste kirol batzuetan baino alde handiagoa dagoela esan daiteke.

**Jauzi kosako bat edo beste edozein jauzi ondo egiteko zenbat egin behar dira gaizki?**

Asko. Baina hori ere neska-aren ahalmenaren arabera dago.

Gimnasta batzuek aste bat nahikoa dute zerbait ikasteko. Beste batzuek, ordea, hilabete.

**Nork margotzen ditu neskek?**

Guk margotzen diegu aurpegia. Egia esan, izugarri gustatzen zaie margotuta ateratzea, gehienbat txikienei.

Jantziak guztien artean diseinatzen ditugu eta gurasoek ordaintzen dute. Klubak materiala ematen digu.

## Kadete mailako neskek Euskadiko txapeldunak

Maiatzaren 21ean Tolosan jokaturako Euskadiko Txapelketan, Arrasate Dragoi taldeko kadete mailako neskek lehenengo postua eskuratu zuten. Bakarkako lanean, Leire Poyato bigarren sailkatu zen uztai eta mazo modalitatean.

Gainera, Astigarragan jokaturako Gipuzkoako Txapelketan, Ainhoa Lizarralde, Irati Nafarrete, Uxue Garro, Eider Etxeberria eta Aintzane Rodriguez bigarren sailkatu ziren alebin mailan.



**"Sorpresa handia izan da Tolosan kadete mailako Euskadiko Txapelketa lortzea"**

**"Muskuluen tonua, malgutasuna eta koordinazioa dira ezaugarri garrantzitsuenak"**

# KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Bergarako Musika Eskolako Udaberri Jaian 300 ikasle inguruk hartu zuten parte | 26
- Lazkao Txikiren ehun bertso kantatuko ditu Xabier Amuritzak barikuan, Eskoriatzan | 27

Oskorriren 'The Pub Ibiltaria' ikuskizuna Aramaion izango da barikuan | 27

## MUNDUKO KULTUREN FESTA



JOSETXO ARANTZABAL

Euskal Herritik baina rumba haizeekin etorri ziren egubakoitzean Mal de Ojokoak.

MUNDUMIRA | ANTOLATZAILEAK POZIK AZALDU DIRA

## Erantzun mundiala izan du munduko kulturen deiak

*Kontzertuak eta kale animazio bikaina izan ziren giro onak asteburu osoan eusteko arrazoiak*

Goreti Elortza / Jon Berezibar

Giro bikaina ia etenik gabekoa izan da Oñatin Munduko Kulturen Jaialdian. Antolatzaileek aho batez arrakastatsutzat jo dute aurtengo Mundumira.

Egubakoitza, ordurako, festa izango zuen erantzun apartekoaren iragarle izan zen: Amparanoiak eta Mal de Ojok frontoia ia lehertu egin zuten eta Deabru Beltzen piroteknia ikusgarria irekitze ikuskizun ezin hobea izan zen. Eguzkia lagun, asteburuko gainerako ekintzek ikusmin eta jende nahikoa erakarri zuten, kontzertuetatik hasi eta azoka zein janari postuetara. Jai disfrutagarria izan zen, adin guztietarako eta egitarau potolo eta entretenigarriarekin. Umeek ere hainbat txoko izan zituzten eurendako prestatuta: zirkua, jolasak, malabarrak... Eta txikienek ere ederto pasatu ahal izan zuten. Ikuskizunei dagokionez, Nino Galissa edo Terra-folkekoak ere aipa daitezke, kontzertu bitxi eta ikusgarriak egin zituzten-eta.

### ANTOLATZAILEEN IRITZIA

Balantze ofizialerako martitzenera arte itxaron beharko bada ere, atzo Mankomunitateak eta

Euskal Herria aldizkariak, antolakuntzarekin batera, balantze baikorraren lehen printzak eman zituzten aditzera. Hala, Ernesto Murgiondok, Mankomunitateko Kultura arduradunak, "bikain" hitza errepikatu zuen behin baino gehiagotan, eta, haren esanetan, "koskarik handienak zapatu eta domeka arratsaldeetan lortu ziren". Izan ere, ordu haietan kale animazioa pil-pilean egon zen McKensy's Clan Band edo 12 Tribukoekin. "Kontzertuez gain, Foruen plazan egindako emanaldiak izan dira aipatzekoak", dio Murgiondok, "eta kale animazioa ere bikaina izan da".

Mendi irteera eta txangoei dagokionez, batez ere natura ibilbideek izan dute arrakasta, "Debagoienak duen ondare natural apartekoa ezagutzeko aukera izanik". Era berean, "aurten ere azpimarratu behar da eskualdeko zein kanpoko GKEen partaidetza eta haien txokoak izan duen harrera". Jaialdiaren bihotza, ordea, plazako karpa nagusia izan zen eta inguru horretatik ikus zitekeen jende gehien. Azokari dagokionez, mendiko materiala eta artisautza ugari ekarri zituzten antolatzaileek eta horretan ere egon zer ikusia eta baita zer erositia ere.

### Mundu guztiko musika eta dantza ekitaldiek oso erantzun ona izan dute

Ostiralean Amparanoia eta Mal de Ojoren kontzertura jende ugari joan zen; 800 bat lagun, antolakuntzaren arabera. Hura izan zen ordaindu beharreko ekitaldi bakarra eta jende gehien erakarri duena. Nino Galissak (Ginea Bissau) *kora*, perkusioa eta dantza bikain uztartu zituen Elkar aretoan eta Terra-folk (Eslovenia) taldeak erritmo izugarria erakutsi zuen. Jai giro polita sortu zuten bai karpa nagusian zein frontoiko gunean.

### Zapatu eta domeka goizean ibilaldi eta bisita gidatuetara animatu zen jendea

*Hiru tenpluen ibilaldira* jende asko animatu zen zapatu goizean. Denera 45 kilometro egin zituzten eta hiru tenplu izan zituen oinarri: Loiolako Santutegia, Antigoako Baseliza eta Arantzazuko Santutegia. Beste hainbat ibilaldi eta bisita gidatu ere izan dira asteburuan: Arantzazuko bidezidorretara, Aloña Mendira eta Arantzazu errekarara. Natura eta kultura ondarearen lekuko izan ziren antolatutako osteretara joandako bisitariak.

### Herriko plazako '5 kontinenteak' izeneko karpa izan da jaialdiaren muina

*5 kontinenteak* izeneko karpa nagusia ekitaldi asko bildu dituen lekua izan da. Ostiralean han egin zuten aurkezpen ekitaldia. Anjel Cuerdoren *Mundu bete kolore* argazki erakusketa ikusteko aukera izan zen bertan, hainbat dantza eta doinu desberdinen artean. 15 urtean zehar ateratako argazkiak izan dira ikusgai, mundu guztian zeharreko askotariko errealitateak erakutsita. Jakin-min handia piztu zuten lanek.


MUNDUKO KULTUREN FESTA




Gaztetxoek entretenimendu nahikoa izan zuten Gaztelekuan ipinitako zirku tailerrarekin.



Amparanoia izan zen egubakoitz gaueko erregina.



Deabru Beltzak taldeak sua erabili zuen.



Saharako zaporeak jaiman.

• PARTE-HARTZAILEEN ESANETAN



ANA PEÑALBA |  
INFORMAZIO PUNTUA

**“Kamiseta asko saldu ditugu, nahiz eta ez den oso merkea”**

Informazio-gunera jende asko hurbildu dela asteburu osoan zehar komentatu digu Ana Peñalba antzularrak. “Gehienak kontzertuetarako edota ibilaldietarako sarrerak erostera etorri dira gure gunera, baita ekitaldi edo postuen kokalekuaz galdezka ere”, esan digu.



UNAI AZKARATE |  
TXOSNAKO TABERNARIA

**“Txandaka egingo dut lan asteburu guztian zehar, baina gustura”**

Aurtengo Mundumirak iazkoak baino zeresan handiagoa izango duela esan zigen Unaiak. “Publizitate gehiago egin da jaiaren inguruan eta ekitaldi mordoa antolatuta ditzute. Horretatik jende asko etorri da”. Antolakuntza aldetik ere kezarik ez zuela aitortu zigen Bergarako gazteak.



JABI ETA AMAIA |  
BIDEZKO MERKATARITZA POSTUKO KIDEAK

**“Txokolatea saltzen da gehien; ondo datorkigu, bero honekin urtu egingo da eta bestela...”**

Zapatuan 11:00etan zabaldu eta asteburu guztian egon dira frontoi ondoan Amaia eta Jabi, Bidezko Merkataritzako dendariak. Jende asko hurbildu da euren postura. “Artisautzako zein dastatzeko produktuak saltzen ditugu, eta txokolatea da orain arte gehien saldu den produktua”. Eguerdi aldera gerturatu dela jende gehien postuetara komentatu digu bikoteak. “Eguraldiak lagundu egin du, eta hori oso garrantzitsua da, bai postuetarako bai beste ekintzetarako ere”, adierazi digute bi oñatiarrek.

**Mundumirako kamiseta solidarioak saldu dituzte asteburuan GKEen alde**

Mundumira jaiadiko kamiseta salgai egon da plazako informazio gunean. Ternua markakoa da eta bere salneurria 24 eurokoa. Hala ere, horietatik 3 euro GKEetara daude zuzenduta. Proiektu hauetara bideratuko da laguntza: Salinera ur edangarria eramateko sarera, Senegalgo haurgintza-klinikako zerbitzuak hobetzeko proiektura eta Haitiko Lavanneau komunitatean osasun etxea eraikitzeke egitasmora, hain zuzen ere.

**GKE asko ezagutzeko aukera eman du azokak, baita haietan laguntza emateko ere**

Era berean, GKEek ere izan dute lekua Mundumiran. Horrela, hainbat erakundek euren proiektuak aurkezteko aukera izan dute. Izan ere, 30 erakunde inguruk dihardute mundu guztian zehar askotariko proiektuetan lanean. Hain zuzen ere, unibertsitateko patioan jarri zituzten euren postuak, eta jende asko hurbildu da asteburu guztian zehar. Zapatuan Santa Anan Debagoieneko GKE-en proiektuak aurkeztu zituzten.

**Mundumirak ate berriak ireki ditu eta Debagoienetik hasi eta mundura egin du salto**

Aurtengo Mundumirak iazkoak baino arreta handiagoa erakarri du. Kaleetan zehar herrialde askotariko aurpegiak nabari zitezkeen, zapore desberdinak dastatu, doinu erakargarriak dantzatu... Katalunia, Madril eta Frantziatik ere hurbildu da jendea. Debagoieneko turismo bulegoetan informazio ugari eskaini dute jaialdiaren inguruan. Hori izan da arrakastaren gakoa, eta, nola ez, izandako eguraldi paregabeak ere lagundu du.

MUNDUKO KULTUREN FESTA



Kaleko giroa asteburu guztian egon zen.



Jatekoa ere ez zen falta izan.



Munduko dantza tradizioaletako erakusgarri asko egon ziren.



Indioen denda baten egindako gurtza berezia.

ERNESTO MURGIENDO | MANKOMUNITATEA

“Kanpora ere zabaltzea lortu da aurtengoarekin”

**Aurreko urteko Arrasateko jaialdiak utzitako zapore gazi-goza kentzea lortu da?**

Bere garaian ere esan zen moduan, guri Arrasatekoak ez zigun inondik inora zapore txarrik utzi. Iaz ez genuen aurtengo eguraldia izan eta ezin da ahaztu lehen urtea izan zela, berandu hasi ginela eta lana ondo egiteko modurik ez genuela izan. Horregatik egon ziren hutsunak, komunikazioari dagokionez batez ere. Iaz, balorazioa egin bezain laster hasi ginen aurtengoarekin, denbora luzeagoarekin, komunikazio plan egokiagoarekin, eta uste dut jendearengana hobeto heldu garela. Herritarrek badakite zer den Mundumira eta kanpokoek ere hobeto jakin dute. Ez da iazkoarekin konparagarria.

**Bisitariet dagokienez, gehienbat bertakoak ibili dira?**

Ni ez nintzateke bereizketa egiten ausartuko. Bertakoak noski egon direla, baina Euskal Herritik bertatik bisitari asko izan ditugu, jendearekin berbetan eta postuetara begiratuta argi ikusi da hori. Estatutik ere bisitari asko ikusi ahal izan dira. Bertako turismo bulegotik jaso-



ARTXIBOA

tako datuen arabera, jakin dugu batez ere kataluniarrak etorri direla, baina baita frantziarrak ere, eta Madrilgoak. Oro har, normalean Euskal Herrira etorri ohi den turismo mota etorri da Mundumirara ere. Honek agerian utzi du jaialdiak zabalkunde izan duela eta jasotako erantzuna ona izan dela.

**Ekitaldiaren bat aipatuko zenuke besteentz gainetik?**

Gu ez gara ausartzen bat bakarrik nabarmentzen, horrek besteak bazter uztea ekarriko luke eta. Egubakoitz eta zapatu arratsaldeko kontzertuek erantzun itzela izan zutela egia da. Karpakoak orokorrean, nahiz eta ordutegiarengatik edo talde batzuek beste batzuek baino erantzun hobea izan badute ere, gune horrek oso ondo funtzionatu du eta orokorrean kontzertu guztiek izan dute erantzun ona. Kale animazioa ere aipatzekoa izan da. Deabru Beltzena ikusgarria izan zen, baina, adibidez, Tradimonekoek ere oso ondo egin zuten edo Mambo Taxi ikuskizuna ere oso ondo egon zen. Zaila da zer bait aukeratzea, hainbeste egon denean. Musika, perkusioa, piroteknia... Ikuskizuna eman duten emanaldi asko egon da aurren.

Plazako karpako guneak oso ondo funtzionatu du orokorrean

Kataluniarrak, madrildarrak eta frantziarrak izan dira kanpotik gehien etorritakoak

• ZER IRUDITU ZAIZUE MUNDUKO KULTUREN JAIALDIA?



MAITE ETA BELEN | OÑATI

Gustura aritu dira Maite eta Belen postu guztietan zer dagoen ikusten. Iaz ez ziren Arrasaten egon eta ordura arte ikusitakoa asko gustatu zitzaion. Gehien gustatu zitzaiona argazki erakusketa eta dastatzeko postuak izan dira. "Iaz Arrasaten antolatu zela eta oso ondo egon zela entzun genuen. Oso ondo iruditzen zaigu horrelakoak antolatzea".



ITSASO, BIXENTE ETA ZORIONE | OÑATI

Oñatiko lagun haiei kaleetan sortu den giroa eta dastatzeko postuak gustatu zaizkie gehien. "Brasilarren kalejira oso ondo egon da eta Deabru Beltzen piroteknia izugarria izan da". Guztia oso ondo antolatuta dagoela iruditu zaie. Iazko Mundumiran ez ziren egon baina aurren herrian izanda, ezin zuten galdu. "Adin guztietarako jaia da, oso egokia herriak parte hartzeko".



NEREA, LEIRE, JONE ETA LEIRE | OÑATI

Eskola kirolean jardun ondoren azokara hurbildu ziren 10-11 urteko oñatiar horiek. "Ondo dago Oñatin horrelako jaialdia antolatzea, gehienetan hirietan bakarrik egiten dira horrelakoak eta" komentatu ziguten gaztetxoek. Gaztelekuak asko gustatu zaizkie eta oraindik guztia ikusteko astirik ez dutela izan aitortu dute. Musika ekitaldiak ikusteko dute gogo gehien, mundu guztiko musika entzuteko.



# ORAIN ESKAINTZA BEREZIA

## berriaren harpidedun egiten bazara...

### aukeratu opari bat



mp3 irakurgailu digitala

Kamera digitala



deitu orain

943 30 43 45



berria

## Euskal Eskola Publikoaren jaia Goienkarian eta Goiena Telebistan

Ekainaren 4an Oñatin egingo den jaiari jarraipen berezia egingo diote Goienkariak eta Goiena Telebistak

GOIENKARIA

Ekainaren 2an, gehigarri berezia

GOIENA TELEBISTA

Ekainaren 6an, saio berezia

Goienkaria



BERTSOLARITZA |  
**ARABAKO TXAPELKETA**

Gustura dago  
Manex Agirre  
zapatuan egin  
zuen lanarekin

M.B.

Gustura dago Manex Agirre Aramaioko bertsolaria zapatuan, Arabako Bertso Txapelketako finalean egin zuen lanarekin. Gainera, "ez dut gehiegi entrenatu, aurren, eta hori nabaritu egiten da", esan digu bertsolari gazteak.

Bosgarren egin zuen Manexek. Eroso ibili zen jarritako gaiekin, baina bakarkakoetan "nahiko gaizki ibili nintzen eta han egin nuen zulara", azaldu digu.

Zigor Enbeitak jantzi du Arabako txapela eta Manex Agirre-ren esanetan, "bera izan zen hobereena, inongo zalantza barik". "Hasieratik nabarmendu zen", gehitu du Manexek eta azkeneko bertsoetan "izugarri" egon zela aitortu du.

Oihana Pereari dagokionez -bigarren egin zuen- ondo ikusi zuela azaldu digu aramaiorak, baina "niri gertatu moduan, azken bakarkako gaian pixka bat nahastu egin zen".



Manex Agirre.



FUNK LATINDARRA | **ORTOPHONK**

Funkyarekin, soularekin eta Brasildik biran ekarritako haize latindarrez lepo itzuli ziren gasteiztarrek Arrasatera

**Non.** Arrasateko 3.60 aretoan.

**Zenbat jende.** 100 bat lagun.

**Iraupena.** Ordu eta erdiko emanaldi funkya egin zuten gasteiztarrek.

**Jon Berezibar**

Badira urte batzuk Gasteizen Ortophonk-ekin zer edo zer egosten hasi eta gutxinaka zabaltzen hasi zela, eta emanaldiz emanaldi eta ahoz ahokoaren indarrez hazten joan zena.

Aurreko bisitatik urtebete igarota, Ortophonk-ekoak egubakoitzean itzuli ziren 3.60 aretora. Funkyaren erritmoez eta soularen dotoreziaz, normalean gitarra astunen soinura ohitua go dagoen aretoari ukitu berezia eman zioten, Brasildik egindako bira amaitu berritik ekarritako haize latindar epelez ahaztu barik. Modu erakargarrian nahastutako koktela.

Musikariek eurek disfrutatu egin zuten, eta hori transmititzea nahikoa izan zen funky erritmoek euren lana bete zezaten. Musi-

ka beltza behar bezala barneratu eta bere egiten dakitela erakutsi zuten. Onak dira, musika eskolatan *musikari on* asko dauden moduan, baina gasteiztarrek taldea erakargarri egiten duen plusa dute: transmititu egiten dute-

la, 70eko hamarkadako euren heroiei imitatzen mugatu barik. Moda eta tendentzien joan-etorri hutsen gainera noranzko finkoa eta aberasgarria erakutsi dute eta disko berrian sartuko dituzten hainbat abesti aurkeztu zuten, euren ohiko ildoan.

Berriz ere, hortaz, konbentzitzea lortu eta taldeak elkarulertze bikaina duela argi utzi zuten, saxotik hasi eta bigarren plano baten baina teklei maisuki eraginez ibili zen Say-Chin piano-jotzaileraino, taldeko azken fitxatzea izan dena.

**Funkyaren erritmoa eta soularen dotorezia uztartzen dakite gasteiztarrek**

MUSIKA ESKOLAK | **BERGARA ETA ARRASATEKOEN EMANALDIK**

Begarako Musika Eskolak Udaberri Jaia ospatu zuen atzo, domeka, ohi duten bezala. 300 bat ikaslek hartu zuten parte jaialdian. Goizean eskolako trikitilariak kalejira egin zuten herriko kaleetan barrena eta 12:30ean emanaldi erraldoia egin zuten eskolako hainbat taldek Udal Pilotalekuan. Horren ondorekin bazkari ederra egin zuten. Horrez aparte, ikasturte bukatzeaz dagoela-eta, Arrasate Musika Eskolako Orkestra Txikiak eta Orkestra Gazteak ere emanaldi egin zuten zapatuan parrokiaren, Amaia Artzamedi eta Domentx Ucinen zuzendaritzapean. | A.G.



IMANOL SORIANO

Begarako Musika Eskolak Udaberri Jaia ospatu zuen atzo.

ARGAZKILARITZA | **BERGARA HIRIA LEHIAKETAKO IRABAZLEAK**

Zapatu gauean erabaki zituzten Pol-Pol argazki taldeak antolatutako Bergara Hiria argazki lehiaketako irabazleak. Zuri-beltzeko argazkietan, Zarauzko Iñaki Kaperotxipik jaso du lehenengo saria, *Sombras* lanarekin eta koloretan, berriz, Oreretako Joaquin Varak eskuratu zuen lehenengo saria *Azpeitia* argazkiarekin. Herriko partaideei dagokienez, zuri-beltzeko Benito Canterok bigarren saria jaso zuen eta koloretan hirugarrena Juan Antonio Untzurrunzagak. Argazkiok ikusgai egongo dira Aroztegi aretoan ekainaren 2tik 11ra bitartean | J. B.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Iñaki Kaperotxipiren *Sombras* lana (1. saria zuri-beltzeko).

## Lagwagon, King Diamond eta bi techno jaialdi, Jameko egitarau berezian

*Bergarako jaiak direla eta, musika emanaldi berezietan eta estilo askoz gozatzeko modua izango da Jam eta GoJam aretoetan*

Leire Kortabarria

Bergarako jaiak laster datoze la eta, Jam aretoak egitarau berezia prestatu du egunotarako.

Hala, gaur, astelehena, Kaliforniako Lagwagon taldearen kontzertua izango da 21:00etan. Eskola berriko punk-rock melodikoan kontuan hartzeko taldea da. Van Morrison, Creedence Clearwater eta halako taldeen abestien bertsiok ere egin dituzte. *Resolve* eta *Live in a dive* diskoak kaleratu zituzten iaz. AEBetatik, Santa Barbaratik, etorriko dira Bergararaino.

Musika jaiak beste estilo batzuekin jarraituko du hilaren

2an eta 3an, asteburuan, GoJam aretoko techno doinuekin. Hala, egubakoitzean, techno jaialdia girotuko dute inguruko bost DJk: Balzak, Angelek, Ene!-k (Kogollo Krew taldekoak hirurak), Imak eta Alain-ek. Proiekzioak eta dekorazio berezia izango dira aretoan. Zapatuan, hilak 3, Ipar Sustraiak izeneko techno jaia izango da gauerdian. Debagoieneko eta kanpoko 14 disko jartzaile arituko dira: David Rojas, A Profesor, Pepote, Koldo Intermusic eta beste batzuk.

### BLACK METALA

Hilaren 3an ere, zapatuan, oso bestelako estilo bateko musika izango da Jamen: King Diamonden black metal doinuak eta estetika satanikoa. Saioa 19:00etan hasiko da eta sarre-  
rak 25 eurotan daude salgai.

Kim Bendix Petersen musikari danimarkarraren izen artistikoa da King Diamond. Black metalaren aitzindariek bat da, izan ere, 70eko hamarkadan hasi zen. Indartsu jarraitzen du, bira honetan erakusten duen moduan.

## Hitzorduak



### 'ESKOITZA' ERAKUSKETA AURKEZTU BERRI DUTE IBARRAUNDI MUSEOAN I

Iraia Artzamendi arrasatearrak Eskoriatzako parajeen marrazki bilduma aurkeztu du

*Eskoitza* izeneko erakusketa aurkeztu zuten atzo, domeka, Ibarraundi museoan. Iraia Artzamendi artista arrasatearra Eskoriatzan bizi izan da, eta herriko bazterrak marraztu ditu. Marrazkiak erakusketan daude, eta izen bereko liburuxka baten ere bildu dituzte.

Aurkezpen ekitaldian parte hartu zuten artistak berak, Andoni Salameo olerkariak eta Koldo Goitia eta Iñaki Bastarrika artezaleek. Musika emanaldia egin zuten ekitaldian.

Erakusketa bisitatzeko aukera dago ekainaren 18ra bitartean.

## Labur

### Oskorriren 'The Pub Ibiltaria' Aramaiora etorriko da

Oskorri taldearen *The Pub Ibiltaria* ikuskizunak Aramaio bisitatu du datorren egubakoitzean, ekainak 2, Txirritola euskara elkar-teak eta Aramaioko udalak antolatuta. Ikuskizuna kultura etxean izango da, 22:00etan, eta Oskorriren musikaz gozatzear gain, hainbat abesti herriko abesteko aukera ere izango da. Horretarako, sarreran, abestiak jasotzen dituen liburuxkak banatuko dira.

*Non zira maitea?, Frantses euskaldun bat etorri zait, Zezenak dira...* eta beste hainbat abesti ezagun entzungo dira ekitaldian.

### Gazteendako capoeira, erromeria dantza eta argazkigintza saioak

Gazteei zuzendutako hiru ikastaro antolatu berri ditu Arrasateko Udala Gazteria Sailak. Batez ere, udara begira antolatu ditu.

Capoeira, erromeria dantzak eta argazkigintza digital praktikoak dira ikastaroen gaiak. Capoeira eta argazkigintza digital ikastarok uztailan emango dituzte, eta erromeriako dantzena, berriz, ekainean, San Juan jaietara begira.

Argibide gehiagorako edo izena emateko, jo Gazte Informazio Bulegora (943 77 00 65; [gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net](mailto:gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net)).

### Lazkao Txikiren ehun bertso kantatuko ditu Xabier Amuritzak

Lazkao Txikiren inguruko bertso antologia prestatu du Xabier Amuritzak, *Lazkao Txiki, bat-bateko sorgina* izenburuarekin, eta berau aurkeztuko du egubakoitzean, ekainak 2, Eskoriatzako Inkernu tabernan, 22:00etan, ordubete inguruko ikuskizun baten.

Bertsolari zornotzarra bakar-bakarrik arituko da taula gainean, mikrofona lagun bakar duela, eta Lazkao Txiki ezagun egin zuten bertsoetatik ehun kantatuko ditu, haren freskotasuna eta umorea berriro plazaratuz.

### ZINEMA I

• **Instinto básico 2** filma emango dute Arrasaten Gaur, astelehena, emango dute film hori Amaia antzokian, 20:30ean.

• **La huella del silencio** filma ikusteko aukera dago Oñatin Gaur, astelehena, emango dute film hori Oñatiko kultura etxean, 19:30ean.

• **El grito** filma emango dute Elgetako Espaloia antzokian Etzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia antzokian, 21:30ean.

• **Brokeback mountain** filma emango dute Aramaion *Brokeback mountain* filma ikusteko aukera izango da egubakoitzean, ekainak 2, Aramaioko kultura etxean, 22:00etan.

### ERAKUSKETAK I

• **Xabier De Zerio** eskultoreak Urretxun du erakusketa

Xabier De Zerio bergararrak eskultura lanak ditu erakusketan Urretxuko Juan de Lizarazu aretoan ekainaren 11ra.

• **Iñaki Ibartzabal** margolari bergararren lanak

Iñaki Ibartzabal bergararrak bere lehen margo erakusketa aurkeztu du. Bergarako Nahikari tabernan ditu hamasei margolan. Masterreka kalean dago taberna hori. Erakusketa hil bukaerara arte dago zabalik.

### • Mari Fran Erañaren margolanen erakusketa

Mari Fran Eraña eibartarrak erakusketa dauka Espaloia antzokian. Berau bisitatzeko azken egunak dira, etzi, eguaztena, itxiko dute-eta.

### IKASTAROAK I

• **Asmoz fundazioak Jakinet ikastaroa antolatu du**

Eusko Ikaskuntzako Asmoz fundazioak Internet bidezko euskal ikasketa ikastaroa antolatu berri du. 250 ordukoa da, eta bi espezialitate artean aukera daiteke: Humanitateak eta Gizarte Zientziak. Argibide gehiagorako, deitu 943 21 23 69 telefono zenbakira edo bidali mezua [jakineta@asmoz.org](mailto:jakineta@asmoz.org) helbidera. Etzi, eguaztena, baino lehen matrikulatzen direnek %5eko deskontua izango dute.

### LEHIAKETAK I

• **San Pedro jaietako egitaraua aukeratzeko**

San Pedro jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketan, 21x10 cm-ko kartelak behar dituzte, honako testuarekin: *2006 San Pedro jaiak Eskoriatza. Ekainak 28, 29 eta 30, uztailak 1*. Lanak udaltxera edo kultur etxera eraman behar dira. 300 euroko saria emango dute. Ekainaren 6a da mugaeguna.

### • Gomentatzen dizut...

**lehiaketan parte har daiteke** Arrasate eta Bergarako gazte informazio zerbitzuek *Gomentatzen dizut...* lehiaketa deitu dute. Oporren gaineko gomen-dioak eskatzen dituzte. Sariak dira, Arrasaten eta Bergaran, 500 euroko balioa duen oporralditxo bat; eta Arrasaten, horrez gain, 17 urtetik beherakoendako, 300 euroko irteera bat.

• **Eskoriatzako jaietako esaldia aukeratzeko sariketa** San Pedro jaietako esaldi lehiaketan ekainaren 4ra bitartean parte har daiteke, proposatutako esaldiak udaletxean eta kultura etxean dauden kutxetan sartuta. 13 urtetik gorako eskoriatzarrek har dezakete parte, taldeka.

### MUSIKA I

• **Kontzertu didaktikoa egingo dute Oñatiko ikasleendako**

Musika eskolako irakasleek Lehen Hezkuntzako ikasleendako kontzertu didaktikoa egingo dute etzi, eguaztena, 14:30ean eta 15:30ean. Santa Ana antzokian izango da saioa.

• **Gose taldeak Oñatin joko du bere biraren barnean**

Arrasate eta Gasteizko Gose taldeak kontzertua egingo du domekan, hilak 4, Oñatin, Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren barnean.



## Zorion agurrak



ARRASATE  
**Jokin Navais**  
Maiatzaren 18an, 6 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE  
**Martxel Aranzadi**  
Maiatzaren 22an, 5 urte. Zorionak! Etxeko guztien partetik.



ARRASATE  
**Eleder Noqueiras**  
Maiatzaren 24an, 6 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE  
**Mari Mar Sanchez**  
Maiatzaren 27an urtebetetzea. Jonen partetik, zorionak.



ARRASATE  
**Maximo Uribesalgo**  
Maiatzaren 29an urtebetetzea. Zorionak, aitaita! Etxekoak.



BERGARA  
**Irati Lazpiur**  
Ekainaren 2an, 8 urte. Urte askotarako! Etxekoan partetik.



ARETXABAETA  
**Alaitz Beltran de H.**  
Maiatzaren 28an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Eñaut, Manex eta Monika.



ANTZUOLA  
**Onintza Olano**  
Maiatzaren 26an, 6 urte. Segi irribarratsu, polita! Etxekoak.



ANTZUOLA  
**Eneida Iturbe**  
Ekainaren 7an, urtebetetzea. Zorionak, potxola! Koadrilakoak.

## Jaiotakoak




**Elaia Gonzalez Ibarrondo**  
Bilbo • 3,160 Kg. Apirilak 26. Gurasoak: Bixente (Arrasate) eta Nerea (Arrasate). Argazkian: Elaia amarekin.



**Gorka Irizar Arregi**  
Oñati • 3,720 kg. Maiatzak 9. Gurasoak: Jose Luis (Oñati) eta Nerea (Mungia). Argazkian: tia Teresarekin.



**Asier Morales Suarez**  
Arrasate • 2,500 Kg. Maiatzak 18. Gurasoak: Dioni (Kordoba) eta Begonia (Arrasate). Argazkian: umea amarekin.



**Ane Kerexeta Errasti**  
Antzuola • 3,150 Kg. Maitzak 21. Gurasoak: Julian (Legazpi) eta M. Teresa (Antzuola). Argazkian: osaba Peiorekin.



**Aitor Biain Navarro**  
Oñati • 3,400. Maiatzak 22. Gurasoak: Aitor (Oñati) eta Elisabeth (Oñati). Argazkian: umea aitarekin.



**Iñaki Barrena Lete**  
Oñati • 3,400. Maiatzak 24. Gurasoak: Juan Ramon (Oñati) eta Arantzazu (Oñati). Argazkian: umea amarekin.



**Naia Gonzalez Seijo**  
Aretxabaleta • 4,150. Maiatzak 26. Gurasoak: Agustin (Aretxabaleta) eta Pili (Aretxabaleta). Argazkian: umea amarekin.



**Unai Ramos Kortazar**  
Eskoriatza • 3,800. Maiatzak 27. Gurasoak: Juan (Eskoriatza) eta Esther (Eskoriatza). Argazkian: umea kuman.



**Aimar Salaberria Cossio**  
Bergara • 2,500. Maiatzak 28. Gurasoak: Unai (Bergara) eta Maria (Bergara). Argazkian: umea gurasoekin.



**Jon Padilla Derteano**  
Oñati • 3,660. Maiatzak 28. Gurasoak: Jose Luis (Oñati) eta Gemma (Oñati). Argazkian: umea kuman.

## Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak,  
lagunak edo  
senitartekoak  
zoriondu  
nahi badituzu,  
**ARRASATE IRRATIAK**  
egunero  
ematen dizu  
aukera hori.

**Bidali eskaria:**  
[irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com)  
helbidera  
edo deitu 943 71 17 31  
telefonora.


Egunero,  
zorion agurren tartea  
**ARRASATE IRRATIAN**

**FM107.7**

**ARRASATE IRRATIA**

## Hildakoak

**Pantxika Arrue Jaka**  
Donostian, maiatzaren 26an, 88 urte.



**ESKELAK**  
ASTELEHENKO  
GOIENKARIA-N  
85 euro  
**943 25 05 01**

ESKELA

## Pantxika Arrue Jaka

Patxi Imazen alarguna

Donostian hil zen 2006ko maiatzaren 26an, 88 urte zituela.

*Hileta-elizkizuna gaur izango da,  
astelehena, Bidebietako San Francisco  
Javier parrokian, 19:30ean.*



Donostian, 2006ko maiatzaren 29an.

**Gaur irratian**

**Arrasate Irratia**

FM 107.7  
'Igo autobusera' | 11:10

**Helduen Eskolakoak Londresen izan dira**

Helduen Eskolako ikasle talde batek Londresera bidaia egin du. Hain zuzen ere, ingelesa ikasten dabilzan ikasleak eta irakaslea izan dira han aste bukaeran. Lurdes Jauregiartzo irakasleak emango digu bidaiaren berri.

**Oñati Irratia**

FM 107.4  
'Eguerdi saioa' | 12:15

**Eneritz Arriaran podologoari elkarrizketa**

Eneritz Arriaran podologoak elkarrizketatuko du. Uda partean oinakin gehiago sufritzen dugu, eta hainbat aholku emango dizkigu Eneritzek: oinak zelan zaindu, sandaliak aukeratzeko zer hartu kontuan, eta beste hainbat.

**Euskadi Irratia**

FM 104.4  
'Faktoria' | 10:30

**Nora Esnaola abokatuak Afinsaren auzia**

**Radio Euskadi**

FM 98.2  
'Boulevard' | 10:30

**Garbiketa-greba udal eraikinetan Gasteizen**

**Herri Irratia**

FM 99.8  
'Kalez kale' | 11:30

**Asteburuak emandakoa izango dute aztergai**

**GOITB programazioa**

Astelehena, 29



**Zegama-Aizkorri mendi maratoia**  
22:15

Domekan jokaturako Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren gaineko erreportajea eskainiko dute *Harmailatik* saioan, Julen Iriondo aurkezlearen eskutik.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Behazulo.
- 14:15 Eltze beroa: Pantxineta.
- 14:30 MI: Egurdia eta zerbitzuak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Munduari bueltaka: Vietnam.
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Didjeridu.
- 17:30 Zera dio.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea.
- 18:15 Sustraia.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Ilupean.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak eta zorion agurrak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Harmailatik: Aloña Mendi berezia.
- 21:45 Albisteak.
- 22:15 Harmailatik: Zegama-Aizkorri mendi maratoia.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Jazz zikloa.
- 23:45 Albisteak.
- 00:15 Amaiera.

Martitzena, 30



**'Berbaire': gizarte eta politika gaiak**  
22:15

Gizarte eta politika gaiak jorratuko dituzte *Berbaire* saioan. Aste honetako gonbidatuak: Elena Laka (argazkian), Mikel Irizar eta Mikel Usabiaga.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Jazz zikloa.
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 MI: Egurdia eta zerbitzuak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Elkartasun bideak.
- 15:30 MI: Egurdia eta zerbitzuak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Harmailatik.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI: Egurdia eta zerbitzuak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jazz zikloa.
- 17:30 Danbaka saioa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea.
- 18:15 Munduari bueltaka.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak eta zorion agurrak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Mundumira 2006.
- 21:45 Albisteak.
- 22:15 Berbaire: Mikel Irizar, Mikel Usabiaga eta Elena Laka dira gonbidatuak.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Behazulo.
- 23:45 Albisteak.
- 00:15 Amaiera.

Eguaztena, 31



**Joserra Perez, 'Debarri'-ko gonbidatua**  
22:15

Joserra Perez Leintz Gatzagako alkatea izango da *Debarri* saioko protagonista oraingo astean. Alberto Gorritiberearekin.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Danbaka.
- 14:30 MI: Egurdia eta zerbitzuak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Mundumira 2006.
- 15:30 MI: Egurdia eta zerbitzuak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Behazulo.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI: Egurdia eta zerbitzuak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Zera dio.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Sustraia.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Didjeridu.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak eta zorion agurrak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Berriak.
- 21:47 Debarri: Leintz Gatzagako alkatea, Joserra Perez.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Erreportajea.
- 23:45 Albisteak.
- 00:15 Amaiera.

Eguena, 1




**Debagoieneko albisteak**  
14:45 eta 19:45

Egunak emandako albisteak jarraitzeko aukera izango duzue GOITBko albistegietan. Deiane Arrietak eta Julen Iriondok aurkeztuta.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea:
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 MI: Egurdia eta zerbitzuak.
- 14:35 Gezi-bideak
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Sustraia.
- 15:30 MI: Egurdia eta zerbitzuak.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Debarri.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jazz mintegia.
- 17:30 MKT musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:15 Iparrorratza.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak eta zorion agurrak:
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Harmailatik berezia: Zegama-Aizkorriko maratoia-ren gaineko erreportajea.
- 21:45 Albisteak.
- 22:15 Didjeridu.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire.
- 23:45 Albisteak
- 00:15 Amaiera.

Egubakoitza, 2



**Ange Duhalde, Oihana Elortzarekin berbetan**  
22:15

Ange Duhalde izango da aste honetako gonbidatua *Ilunpean*-en. Oihana Elortzaren eskutik, Iparraldeko kantaria gertutik ezagutzeko aukera.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 MI: Egurdia eta zerbitzuak.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Iparrorratza.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI: Egurdia eta zerbitzuak.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albisteak.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Eltze beroa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albisteak.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Jazz mintegia.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Behazulo.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Ilunpean: Ange Duhalde.
- 22:45 Albisteak
- 23:15 Debarri
- 00:15 Berriak
- 00:45 Amaiera.

**Kamera aurrean**



**"Euskara planetan aitzindaria da Debagoiena; gure ibarrean euskara planak kooperatibetan egiten dira batez ere"**

AGURNE BARRUSO |  
ELHUYAR AHOLKULARITZA  
Berriak, 2006-05-24



**"6.500 metroko mendia da Shiving. Oso alpinoa, mendi ederra, pareta askorekin. Izotz eskalada egiteko aproposa da"**

ALBERTO IÑURRATEGI |  
MENDIZALEA  
Berriak, 2006-05-25

**Mundumira 2006**

**MUNDUKO KULTUREN FESTA**  
Martitzenean, maiatzaren 30ean,  
21:15ean



*Ikustekoa!*

Maiatzaren 29a: 088 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

**txokoa**

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, maiatzak 29, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!  
*Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

## BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

**Harpidetza kuota, 35 euro**

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.

Zure izena  
zerrendan badago,  
**ZORIONAK!**

ECRON musika  
mikro-kate bat.

- Juan Jose Regodesebes Usatorre (Arrasate)


ELGETAKO ESPALOAIA KAFE  
ANTZOKIAN izango den  
moda desfilerako bi  
gonbidapen (Eskola  
Publikoaren Festaren alde)

- Andoni Retes Bardegi (Bergara)

Sei gonbidapen EIBAR-  
LEVANTE futbol partidurako  
(saridun bakoitzari bi  
emango zaizkio).

- Iñaki Narbaiza Aldai (Bergara)
- Juan Ignacio Alkorta Gorosabel (Oñati)
- Alfonso Billar Biteri (Arrasate)
- Begoña Arenaza Bengoa (Aretxabaleta)
- Alejandro Cristobal Sanchez (Elgeta)
- Rosa Urreta Iza (Gatzaga)

## Ekainaren 5eko sariak



- Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTA bi menu jateko (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).



**DONOSTIAKO AQUARIUMa**

bisitatzeko bi gonbidapen.  
(saridun bakoitzari bina emango zaizkio)



## Hamarrekoa

JUAN MARI BELTRAN | MUSIKARIA

# "Gu ere mundu garela argi gelditu da Oñatin egin den Mundumira jaialdian"

Goreti Elortza

**1.** Herri musikaren orkestragizon zara? Ez dut uste. Orkestra-gizon tresna asko batera jotzen dituen da, eta nik tresna batzuk jotzen ditut, baina ez guztiak batera! Batzuetan dultzaineroa naiz, bestetan txistularia, txalapartaria...

**2.** Euskal musika tresnak desagertzeaz daude? Nik ezin diot horri erantzun, baina momentuz itxurarik ez du behintzat. Musika eskoletan ikasle faltarik ez dago.

**3.** Nor joaten da alboka, dultzaina edo txistua jotzen ikastera? Ikasi nahi duen edozein etortzen da. Orain 21 urte, 30-45 urteko jendea inguratzen zen gehien txalaparta eskoletara. Askotan ez dakigu zein den ikasle eta zein irakasle.

**4.** Bateria eta gitarra jotzen ere badakizu? Bateria ideiarik ez, eseri izan naiz eta asmatzen dut konpasa eramaten, baina... Gitarra betidanik gustatu izan zait. Gaztetan erosi eta soldadutzan ikasi nuen, nire gisa, besterik gabe.

**5.** Zenbat musika tresna dituzu katalogatuta? Guztira 1.200 tresna inguru dira. Pieza asko desberdinak dira herrialde edo garairen arabera, tresna bera bada ere. Gipuzkoako, Bizkaiko, Nafarroako, Espainiako eta kontinente guztietako tresnak ditugu bilduman.

**6.** Zer ikusi duzu Mundumiran? Ez nahi nuen izan genuen-eta, beste saio bat genuelako. Giro aparta egon zen, gu ere mundu garela garbi gelditu da. Gure saioan jendea engantxatu genuen eta ordu erdi gehiago jotzeko eskatu ziguten.

**7.** Deitzen al dizuete ezkontzetan musika jotzeko? Oso gutxitan, oso gauza berezietan jotzen dugu. Astiazaran anaiak eta hirurok aritzen gara. Festetan jotzen dugu gehienbat.

**8.** Eta dantzan nola moldatzen zara? Badakizu dantzan? Gustatzen zait eta askotan ausartzen naiz. Baina *sapu* hutsa naiz. Etxarriko kioskotik klarineta jotzen nuela, beheko jendea ikusita ikasi nuen dantzan.



JOSETXO ARANTZABAL

Etxarrikoa da Juan Mari Beltran eta Oiartzunen bizi da egun. Musikari amorratua, 7 urterekin hasi zen musika akademian. 11 urte zituela musika bandan klarineta jotzen eta txistu taldean txistua jotzen hasi zen. Euskal musikari askorekin egin du lan. Hernaniko Musika Eskolan irakasle dihardu duela 21 urte. Egun, txalaparta eta alboka irakasten ditu astean bitan.

**9.** Musika mota guztiak nahas daitezke? Nahas daitezke, baina nahas-keta egokia behar du izan. Askotan ez dira egokiak izaten, posible ez diren formulak nahasten saiatzen dira-eta.

**10.** Nondik dator musika? Behar dugu eta etorri da, behar genuelako! Beharizan hori izan ez bagenu, ez litzateke sortuko. Gauza naturala da, eta aukera ugari ematen ditu.



Biharamuna

Iñigo Biain

## Gure mundua, beste munduak

Asteburuan Oñatin ospatu den **Mundumira** dela eta, munduari gain-begirada bat bota nahi izan diot, baina berehala ohartu naiz ez dudala lan erraza aukeratu. Gure ikuspegiaren arabera, bi zatitan bana dezakegu mundua: gure mundua alde bate-tik, eta gure mundura etorri nahi dutenen mundua bestetik. Begira bestela **Kanariar Uhartek**.

Ehunika dira hara heltzen diren afrikarrak, eta ez ditugu nahi, hel-tzen direnen %30ek gaixotasun larriak dituztelako. Afrikarrak ez, baina **Rocio Jurado** bai. Gainera, etorkinekin batera delinkuentzia ere etortzen omen da haien mundutik gurera... Eta ez ditugu nahi. Baina **Julian Muñoz** eta **Juan Antonio Roca** bai. Bitartean, **Tita Cervera** Madrilgo zuhaitz baten aldeko gurutzadan dabil, eta gu ez gara gure buruari galdetzen ausartzen ea nondik datozen gure etxeak janzen dituzten altzariak egiteko **egur** mordoia, edo gure autoak mugitzen dituen **erregaia**, edo gure dutxako ura berotzen duen **gasa**, edo goizero esnatzen laguntzen digun **kafea**... Baina hala ere, etorkinak dira delinkuentzia eta gaixotasunak dakartzatenak. Ez al gara gu geu konplize haien munduak heriotzaraino txirotzearen delituan, haien munduen kolonizazio ekonomikoan, eta haien munduetan gaixotasun berriak sartzearen bekatuan? Zergatik ez dugu aizkolari ginearrik nahi? Edo artzain ekuadortarrik? Ba, nik neuk, bertsolari pakistandar bat gustura entzungo nuke hurrengo Mundumiran... Zabal ditzagun benetan atea beste munduetara!

**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

**SOINUAK:** Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA  
**ABESTIAK:** Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA  
**LOGOAK:** Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA  
**JOKOAK:** Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

**5767** zenbakira SMS bakoitzeko: **1,2 € + BEZA**

**smsoinu**  
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

**ABESTIAK** POLIFONIKOAK (SMS 1)  
Abestiaren izena (Abestia) | **KODEA**

**SOINUAK** ERREALAK (2 SMS)  
Abestiaren izena | **KODEA**

**LOGOAK** (SMS 1)  
**KODEA**

**OHARRAK**  
**1. BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: [www.smsoinu.com/bateragarri](http://www.smsoinu.com/bateragarri)  
**2. BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPS sistema aktibatuta izatea. GPS sistema aktibatuzko, jarraituz zure horritzaileekin harremanetan. Alta ematea duan da eta Ki jaitsera batera ordaintu behar duzu. Kasu guztietan deia eta GPS sisteman alta ematea duan dira.  
**3. ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / edo deitu 902 01 21 48 telefonoa.  
**4. PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezateke nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonoa.

**Himnoak**  
Eibar | **EBAR**  
Athletic Club | **BILBAO**  
Osasuna | **OSASUNA**  
Real | **REAL**  
Real Union | **UNION**  
**Folk**  
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | **SOROTAN**  
Bai euskarari (Pantxo) | **BAI**  
Bakezaleak (Anje Duhalde) | **BAKE**  
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | **BIZKAIA**  
Eperak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**  
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) | **EUSKAL**  
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) | **EUSKALDUN**  
Ez da posible (Ruper Ordorika) | **POSIBLE**  
Furra Furra (Oskorri) | **FURRA**  
Galziara noa (Oskorri) | **GALZIARA**  
Germikako Arbola (Gontzal Mendibil) | **GERNIKAT**  
Haika Mutil (Mikel Laboa) | **HAIKA**

**Herrikoia**  
Bagare | **BAGARE**  
Desde Santurce a Bilbao | **DESDE**  
Ikusi Mendizaleak | **MENDI**  
Pintxo-pintxo | **PINTXO**  
San Simon eta San Judas | **SAN**

**Izarren hautsa** (Xabier Lete) | **IZARREN**  
Lepoan hartu ta (Pantxo/Peio) | **LEPOAN**  
Marinelaren zai (Sorotan Bele) | **MARINE**  
Nere herriko neska bate (B.Lertxundi) | **NERE**  
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) | **NON**  
Oñ Arma Euskal Herria (B.Lertxundi) | **OÑARMA**  
Tiraki (Oskorri) | **TIRA**  
Txabametsallatzen (Mikel Urdangarin) | **TXATXA**  
Txoria txori (Mikel Laboa) | **TXORIA**  
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordorika) | **ZAINDU**

**1,2,3,4...Real!** | **REAL**  
Alboka | **ALBOKA**  
Athletic lup!!! | **IEUP**  
Buztan bertsoa | **BERTSO**  
Hartu... Aitaren ta semea... | **AITAREN**  
Hartu... Ansar | **ANSAR**  
Hartu... Argentinarra | **ARGEN**  
Hartu... Mexikarra | **MEXIKO**  
Hartu... Miamol! | **MIAMOL**  
Independentzia! | **INDEPEN**  
Irrintzia | **IRRINTZI**  
Jotake irabazi arte! | **JOTAKE**  
Milazu! (pilota) | **MILAZU**  
Suprinua | **SUPRINU**  
Tobera | **TOBERA**  
Txalaparta | **TXALAPA**  
Txanbela | **TXANBELA**  
Txoootx | **TXOOTX**

**LAU1** **MUSKARIA** **AIZKORAK**  
**NUKLEAR** **KALABER1** **EGUZKILORE3**  
**SORGIN** **POPATK** **KAPUTX**

**WEBGUNEAN** ➔ [www.smsoinu.com](http://www.smsoinu.com)